ESKUPILOTA: BOTE LUZEKO TOPAKETAK OÑATIN ZAPATUAN /10

Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2005.05.20

V. urtea • 200. zenbakia • DOAN BANATZEKOA

HILTEGIA

Herri plataformek eskatu dute negoziazio mahai osatzea /4

IÑIGO LAMARCA / ARARTEKOA

"Eskubideak onartzen dituzten legeak eta neurriak beti etortzen dira berandu" **/8-9**

BEASAIN-DURANGO

Ormaiztegi-Zumarraga zabalduta, 2010erako Bergarara /5

ASTEKO GAIA: III. MAPA SOZIOLINGUISTIKOA

Gaitasuna eta erabilera, desberdinak

Debagoieneko hiztunen %66,1ek euskaraz zekien 2001ean, 1991n baino bost puntu gehiago; eta euskaldun berriak ere gehiago ziren, %11,7 lehengo %7,5aren aldean edo 1986ko %4aren aldean. Baina etxean euskara aukeratzen dutenen portzentaiak berdin jarraitu du: %39k egiten du euskaraz, eta %17k euskaraz zein gaztelaniaz. Horiek dira Eusko Jaurlaritzak Mapa Soziolinguistikoa egiteko batu dituen datuak, eta bat datoz EAEko egoera orokorrarekin.

Bestalde, Arrasaten eta Eskoriatzan kale-neurketak egin dira, eta horiek diote kaleko erabilera igo egin dela bi kasuetan, batez ere Arrasaten. **/2-3**

Ikus-entzunezko Komunikazioa karrera eskainiko dute MUn

MUk datorren ikasturterako lizentzia berriak aurkeztu ditu gaur goizean Donostian. Karrera berrietako bat izango da Ikus-entzunezko Komunikazioa. Karrera berria irakatsiko da Eskoriatzan, HUHEZIn. Karrera hori egiten dutenek lan egiteko aukera izango dute ikus-entzunezko hedabideetan nahiz idatzizkoetan, komunikazio ekoiztetxeetan, enpresetan, administrazioan eta Interneten. **/4**

AINTZANE IRIZAR

Trialak, gero eta zale gehiago ibarrean

Trialerako zaletasuna bizi-bizi dago Debagoienean, batik bat Leintz bailaran. Han, Eskomotor elkartean batzen dira zaleak, eta Eskoriatzako jaietarako, bigarren urtez, trial proba antolatzeko ahaleginetan dabiltza. Pilotu horiek Euskal Herri osoko probetan ibiltzen dira, eta oso emaitza onak lortu dituzte azkenaldian. **/13-15**

Goienka2a

ARRASATE

Ekainean bukatuko dituzte anbulatorioa berritzeko lanak

Ekaineko lehen hamabostaldirako bukatuko dituzte anbulatorioko lanak. Beheko solairuko eta eraikinaren fatxadako obrak bukatzea falta da. Behin lan guztiak egin ostean, eraikinak itxura berria izateaz gainera, anbulatorioko zerbitzuen antolaketa egokitu egingo dute. Beste igogailu bat ere ipini dute. **/7**

DEBAGOIENA/4-5 • IRITZIA/6 • HERRIZ HERRI/7 • KIROLA/10-11 • NON-ZER/16-17 • SAILKATUAK/18 • ESKELAK/19 • DENBORA-PASA/20 • TELEBISTA/22

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2005eko maiatzaren 20a

Euskaraz jakin bai, eta egin ez

■ Euskara gero eta jende gehiagok daki, baina etxeko erabilerak ez du gora egiten

■ Kontseiluak salatzen du egungo hezkuntza ereduek "ez dutela euskalduntzen"

nolako ikasketak
halako lana

MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
ARRASATEko Campusa
Lehen zikloa
• Industri Elektronikan Ingeniaritza Teknikoa.
• Sistemen Informatikan Ingeniaritza Teknikoa.
• Kudeaketa Informatikan Ingeniaritza Teknikoa.
• Industri Mekanikan Ingeniaritza Teknikoa.
• Industri Diseinuan Ingeniaritza Teknikoa.
• Telekomunikazioetan Ingeniaritza Teknikoa (Telematika eta Telekomunikazio Sistemak).
Bigarren zikloa
• Automatika eta Industri Elektronikan Ingeniaritza.
• Industri Antolakuntzan Ingeniaritza.
• Informatikan Ingeniaritza.
• Industri Ingeniaritza.
• Telekomunikazioetan Ingeniaritza.
GOIERRIko Campusa
Lehen zikloa
• Industri Mekanikan Ingeniaritza Teknikoa.

JARDUNALDI IREKIAK
ARRASATEko Campusa
943 71 21 92
• 2. zikloa: maiatzak 26, 17:30etan.
• Biteri Ikastetxe Nagusia: ekainak 11, 11:00etan.

ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA
OÑATIko Campusa
Lehen zikloa
• Zuzendari Idazkaritza.
Ziklo luzea
• Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan Lizentziatura.
- Finantza Zuzendaritza.
- Merkataritza Zuzendaritza.
- Erakundeen Kudeaketa.
BIDASOAko Campusa
• Enpresa Zientziatzan Diplomatura.
- Nazioarteko Merkataritza.
- Enpresa Logistika eta Garraioa.

JARDUNALDI IREKIAK
OÑATIko Campusa
943 71 80 09
• maiatzak 12, 18:00etan.
BIDASOAko Campusa
943 63 91 29
• maiatzak 7, 10:00etatik 13:00etara.

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA
ESKORIATZAko Campusa
Lehen zikloa
• Irakaslea, Haur Hezkuntza espezialitatea.
• Irakaslea, Hezkuntza Berezia espezialitatea.
• Irakaslea, Atzerriko Hizkuntza espezialitatea.
• Irakaslea, Heziketa Fisikoa espezialitatea.
• Irakaslea, Entzumena eta Mintzaira espezialitatea.
• Irakaslea, Lehen Hezkuntza espezialitatea.
Bigarren zikloa
• Psikopedagogian Lizentziatura.
- Hizkuntzen Psikopedagogia.
- Esku-hartze Psikopedagogikoa.
Ziklo luzea
• Giza Zientziak Lizentziatura.
- Giza Zientziak Enpresari aplikatuta.
- Giza Zientziak Informazio eta Komunikazioari aplikatuta.

JARDUNALDI IREKIAK
ESKORIATZAko Campusa
943 71 41 57
• maiatzak 19, 18:00etan.

inskripzio epea zabalik

www.mondragon.edu
MONDRAGON CORPORACION COOPERATIVA

LEIRE KORTABARRIA

Euskarak hiztunak irabazi ditu Debagoienean azken hogei urteotan: euskaldun kopurua 12 puntu igo da, eta %66an dago. Baina erabilera ez da igo; izan ere, etxean, hizkuntza bakoitzaren erabilera-tasak orain hamar urteko berberak dira. Hori da Eusko Jaurlaritzaren Euskal Herriko Hizkuntza-adierazleen Sistemak (EAS neurgailuak) Debagoienean marrazten duen egoera. Neurgailu horiek erabiltzen ditu Eusko Jaurlaritzak euskararen gaineko ikerketak egiteko; tartean, egunotan aurkeztu den III. Mapa Soziolinguistikoa.

Oraingoz, balorazioak EAErako bakarrik egin ditu Hizkuntza Sailburuordetzak, baina datuak bai, herriz herri batu ditu, eta, horien argitara, Debagoieneko egoera EAEko osotasunaren oso antzekoa da. Hemen ere, EAE osoan bezala, euskara dakien jende gehiago dago eta joera goranzkoa da, baina euskaldun berri gehienek gaztelania aukeratzen dute.

Hori jakinarazten duten zenbait datu daude. Datu zaharrenak 1981ekoak dira; berrienak, 2001ekoak. Hasteko, euskaldun kopuruari dagokionez, Debagoiena maila onean dago: populazioaren %66,1 elebiduna da, oso tasa altua EAEko batez besteko %32,2arekin alderatzen badugu. Euskalduntze maila ere ona da: 2001ean, debagoiendarren %11,7 ziren euskaldun berriak, hamar urte lehenago baino lau puntu gehiago. Bestetik, Debagoieneko hiztunen

Euskararen Eguna, bihar

Euskararen Eguna ospatuko dute bihar, zapatua, Aretxabaletan. Honako ekintzak antolatu ditu Loramendi elkarteak: 11:00etan, trikitilarien kalejira; 12:00etan, kanpai-jotzea eta umeendako tailerrak, plazan; 13:00etan, inguruko baserrietako gazta-dastatzea; 13:30etan, Maialen Lujanbio eta Sustrai Colinaren bertso saioa; 14:30ean, herri bazkaria, Herriko plazan, eta bazkalostean, Trikimailu antzerki talde aretxabaletarraren antzezlan berria. Segidan, gaita joleen kalejira, kale animazioa eta herriko gazte ekimenaren kalejira izango dira, eta 21:00etan, perkusio emanaldia. Egun osoan, hainbat erakusketa egongo dira.

GOIENKARIA

Jende askok parte hartu zuen iazko Euskararen Eguneko bazkarian, Aretxabaletan.

IÑIGO IÑURRATEGI

MANKOMUNITATEA - EUSKARA

Zenbakiek adierazten digute oraingo guraso gazteen belaunaldia dela aspaldian euskararen aldetik baldintza eskasenak dituena (ezagutza eta erabilera mailan); baina etorkizuneko guraso belaunaldiak euskararen ikuspegitik aukera handiagoak izango ditu. Erronka guraso gazteek, familian, etxeko lehen hizkuntza euskara aukeratzea izango da. Belaunaldi gazteengan motibazioaren arloan lan egin beharko da, ofizialtasunari, erabilera publikoari eta funtzioei dagokienez dauden hutsuneak ahaztu gabe.

IRATI PAGOAGA

AED ELKARTEA - GAZTE SAILA

Baditut hainbat kezka, ikusirik datuok administrazioak eman dituela. Administrazioak euskararen ezagutza bultzatzen du, baina erabilerari dagokionean trabak jartzen ditu., bere zerbitzuak euskaraz ez eskaintzeagatik. Honen adierazle garbia da Behatokiak kaleratutako salaketen txostena. Bestetik, datuok euskaraz bizi nahi eta ezinean dabilen komunitate baten isla dira; honek eskatzen du euskara ofiziala izatea. Bukatzeko, benetan euskaldunduko duen hizkuntza politika eraginkor baten beharra dugu.

ESTEPAN PLAZAOLA

GOIENA KOOPERATIBAKO PRESID.

Arrasateko lehenengo kale neurketa, seguruena, 1981 ingurua. Neurtzaile nintzen eta gazte koadrila bakar batekoei entzun genien euskaraz: San Viatorreko eskautetan zebiltzanei. Ordutik hona iraultza bat gertatu da. Zaharren hizkuntza zena gaur gazteen hizkuntza ere bada. Baina, aldi berean, ikasketak euskaraz egin dituzten askori eta askori euskara moteldu egin zaio ez erabiliaren poderioz eta gaur eskolatik irteten ari den beste mordo bati ere hori gertatuko zaie... euskara helduen hizkuntza izatea lortu ezik.

MARIAN LIZARRALDE

OÑATIKO UDALA - EUSKARA TEKN.

Mapa Soziolinguistikoak adierazten du 200.000 hiztun potentzial gehiago daudela, nahi eta ahal badute euskaraz egiten dutenak. Elebakar erdaldunak badaude, baina gero eta populazio zaharragoa da; alde horretatik, etorkinen seme-alaben eragina handia izango da, eta euren integrazio eta euskalduntzerako politika eraginkorrak txertatu behar dira.

Zifrak hotzak dira, baina inoiz ez ditugu hainbeste euskaldun izan, eta harrotzeko moduko zifrak izan barik, itxaropentsu egotekoak badira.

IÑIGO ARREGI

EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ

Euskararen Legea eta hizkuntza politikak 1982an ezarri ziren, baina ez dute aurrerapauso handirik egin; 25 urte hauetan, eskoletan dauzkagun hizkuntza-ereduek ez dute euskalduntzen, eta erabilera ez da handitu. Behatokiak salatu berri du, gainera, Euskal Herri osoan hizkuntza-eskubideak urratzen direla. Horrenbestez, balantzea ez da batere baikorra, tresna sendoak izan ditugun arren. 25 urte behar izan badira euskaldun kopurua %10 igotzeko, zenbat urte behar izango dira euskalduntze osoa lortzeko?

erdiak euskaldun zaharrak direnez, euskaldun berrien tasak ezin dira inoiz oso zifra altuak izan.

Aldatu ez diren zifrak dira erabilerari dagozkionak. 1991ean eta 2001ean, debagoiendarretatik %39k diote etxean euskaraz egiten dutela; %17 inguruk, euskaraz eta gaztelaniaz; eta %43 inguruk, gaztelaniaz. Jaurlaritzaren esanetan, 30-34 urte bitartekoek erabiltzen dute gutxien euskara, eta gehien egiten duten "ia guztiak euskaldun zaharren taldekoak dira". Euskaldun berrien %84,1ek gaztelania hutsez egiten du etxean; 30 urtetik beherakoen artean, %90ek.

Horren aurrean, Mapa Soziolinguistikoaren ondorioa da euskaldun berri gehienek gaztelania baino ez dutela erabiltzen etxean. Izan ere, "euskara izan dadin ohiko hizkuntza etxean, beharbeharrezkoa da etxeko guztiek jakin dezaten euskaraz hitz egiten. Nahikoa da familiako kide bakar batek euskaraz ez jakitea erabilerak oso behera egiteko".

Horren aurrean, Hizkuntza Sailak proposatzen duena da euskaldun berriei aukera gehiago ematea euskaraz egin dezaten.

KALE-NEURKETAK IBARREAN

Ez da hori egunotan euskararen gainean aurkeztu den ikerketa bakarra. Arrasate eta Eskoriatzako Udalek egin berri dute kaleneurketa bana; Arrasatekoak joan den astean aurkeztu zituen bere ondorioak, eta Eskoriatzakoak astelehenean, hilak 23, egingo du gauza bera, herriko kultura-etxean, 18:00etan. Horien ondorioak bestelakoak dira: izan ere, bi herrietan, euskararen erabilera kalean hazi egin da. Arrasaten, 1988-2005 aldiko datuak konparatzen dira, eta ondorioa da %14tik %32ra pasatu dela, eta hazkundea %128koa izan da. Arrasateko Udal Euskara Sailaren esanetan, "Arrasaten, euskararen kaleko erabilera ez da oso altua, baina kontuan hartu behar da urte hauetan guztiotan izugarri hazi dela: bikoiztu baino gehiago egin da". 1993-2001 epean, Debagoieneko hazkundea %10ekoa besterik ez zen izan.

Eskoriatzan ere antzeko emaitzak dituzte: kaleko erabilera indizea %33,2 da. "1997tik aurrera erabilerak zekarren beheranzko joera eten egin da eta gora egin du aurten", da ondorioa.

Ikerketa horien eta Mapa Soziolinguistikoaren arteko aldea da udal ikerketak neurketetan oinarritzen direla, eta Mapa, aldiz, etxeetan egindako galdeketa baten.

BELAUNALDI BERRIAK EUSKALDUNDU

Jaurlaritzaren ikerketaren ondoren, hausnarketarako eta estrategia berriak ezartzeko garaia izango da orain. Kontseiluak esan du "A eta B ereduek ez dutela euskalduntzea lortzen" eta "hizkuntza-ereduen erreforma beharrezkoa" dela. "Belaunaldi berriak euskaldunak izango direla ziurtatzen ez bada, ez dago euskara normalizatzerik", dio Kontseiluak. Horrez gain, Hizkuntza Eskubideen Behatokiak salatu du hizkuntza-eskubideak "Euskal Herri osoan eta administrazio guztietan urratzen direla" eta "Osasun arloan atzerapausoen zantzuak nabariak izan direla". Euren iritziz, "aurrerakuntza errealik ez da aplikatu".

Bestalde, Oñatiko Udal Euskara Teknikariak, Marian Lizarraldek, azpimarratzen du dagoeneko euskaldun beteak direnek duten erantzukizuna egoera guztietan euskara aukeratzeko, eta gogorarazten du euskararen normalizazio prozesuan erronkak maila askotan daudela.

Hizkuntza Sailak dio euskaraz egiteko aukera gehiago behar dutela euskaldun berriek

Euskararen egoera Debagoienean (%) ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA

	Elebidunak		Euskaldun berriak		Etxeko erabilera	
	1991	2001	1991	2001	1991	2001
Antzuola	71,5	**77,0**	7,2	**8,4**	66,7	**67,4**
Aramaio	86,9	**86,5**	3,2	**4,3**	83,8	**84,5**
Aretxabaleta	59,8	**64,9**	9,1	**12,6**	53,9	**54,7**
Arrasate	49,3	**55,7**	8,7	**14,4**	43,0	**43,2**
Bergara	66,6	**70,1**	6,9	**10,6**	61,2	**61,3**
Elgeta	88,1	**85,3**	4,0	**5,1**	85,7	**82,9**
Eskoriatza	52,0	**59,1**	4,7	**12,6**	50,3	**49,2**
Leintz Gatzaga	78,6	**78,8**	3,4	**4,8**	80,3	**73,9**
Oñati	78,9	**79,7**	6,7	**9,2**	74,3	**74,7**

Hizkuntza-gaitasuna Debagoienean eta EAEn



I.A.

Herri plataformetako ordezkariek Oñatiko hiltegia zabalik edukitzearen aldeko apustua egin dute.

Negoziazio mahaia eskatu dute hiltegiaren etorkizuna erabakitzeko

Herri Plataformen ustez, kaltetu guztiek osatu behar dute mahai hori

IRATI AGIRREAZALDEGI

Hiltegiaren auzian kaltetutakoei elkartasuna adierazteaz gain, Debagoieneko herri plataformek negoziazio mahaia eratzea proposatu dute hiltegiaren etorkizuna erabakitzeko. Eztabaidan oinarritutako taldea izango litzateke.

Debagoieneko herri plataformek hiltegia zabalik edukitzearen aldeko aldarrikapena egin dute. Horretarako, Hiltegia Bizirik plataformaren proposamenarekin bat egiten dutela jakinarazi dute. "Baserritar, harakin eta hiltegiko langileen artean enpresa bat eratzea egokitzat jotzen dugu. Hala ere, Mankomunitateak zerbitzu publikoa ematen jarraitu beharko luke. Ez era zuzenean, baizik eta kontzesio administratiboa eginez; lehiaketa bidez, baldintza ekonomikoak zein gainontzeko oinarriak finkatuz".

BAZTERKETA

Hiltegiaren auzian Debagoieneko alderdi politiko guztiek euren iritzia eman dutela ere esan dute; beti ere, azpimarratuz eurak baztertu egin dituztela: "PP, PSE-EE, EB eta Aralarrek iritzia eman haien artean elkartuta, geure bazterketaren zergatiei buruz azalpenik eman gabe; EAJ-EAk, berriz, Mankomunitatearen Plenoan hartutako erabakiaren bitartez, hauek ere geu baztertuz".

"Hiltegiaren etorkizunaren inguruan eztabaida sakona ireki behar da kaltetu guztiekin"

NEGOZIAZIO MAHAIA

Horren aurrean, negoziazio mahaia osatzea proposatu dute plataformek. "Auzia ahalik eta ondoen konpondu nahi bada, hiltegiaren etorkizunaren inguruan eztabaida sakona ireki behar da kaltetutako alde guztiekin negoziazio mahaia osatuz, inolako bazterketarik gabe".

Gaineratu dute negoziazio mahaia elkarrizketan oinarritu beharko litzatekeela, "jarrera pertsonalak alboratuz eta eztabaidaren oinarrian herritarren onura kokatuz".

Donostiako manifestaziorako dei egin du biharko Segik

Arrasate-Bergaratik 16:00etan irtengo da autobusa bihar

GOIENKARIA

Debagoieneko Segik dei bateratua egin du bihar Donostian egingo den manifestaziora joateko. Autobusa aterako da arratsaldeko 4etan Arrasatetik eta Bergaran ere geldialdia egingo du.

Eskubide zibil eta politikoen defentsan, gazteria aurrera!! leloarekin egingo da bihar manifestazioa Donostiako kaleetan, Segik deituta; ekitaldia ere egongo da. Eskualdeko Segik ere bat egin du deialdiarekin eta hara joateko autobusa ere jarri du. Manifestazioa 18:00etan izango da; autobusa, berriz, 16:00etan aterako da Arrasatetik, eta Bergaran ere geldialdia egingo du.

ERREPRESIOA SALATZEKO

Donostiako kale agerraldiaren asmoa "errepresioaren osotasunari erantzun eta gazteriaren defentsa, antolakuntzaren defentsa eta borrokaren balioa azpimarratzea" da eskualdeko Segik Arrasateko prentsaurrekoan adierazi zuenez.

GOIENKARIA

Joan zen zapatuan egin zuen prentsaurrekoa Arrasaten eskualdeko Segik.

Karrera berriak MUn: Ikus-entzunezko Komunikazioa

GOIENKARIA

Mondragon Unibertsitateak lizentzia berri bat eskainiko du datorren ikasturtean: Ikus-entzunezko Komunikazioa. Karrera berriak irakatsiko dira Eskoriatzan, HUHEZIn. Eskaintza honekin erantzun nahi dio MUk komunikazioak gizarte berrian ezartzen duen erronkari. Profesionalak prestatuko dira, eta hauek prest izango dira edukiak sortzeko eta kudeatzeko, edozein euskarri erabilita. Karrera hori egiten dutenek lan egiteko aukera izango dute ikus-entzunezko hedabideetan nahiz idatzizkoetan, komunikazio ekoiztetxeetan, enpresetan, administrazioan eta Interneten.

KIA MOTORS

KIA SPORTAGE
Gasolina/Diesel
19.155 eurotik
aurrera*

KIA CARNIVAL
Gasolina/Diesel
19.300 eurotik aurrera*

KIA PICANTO 1.0 / 1.1
"0 km" azken unitateak
6.580 eurotik aurrera*

Tecnocar

Honda eta Kia
banatzaile ofiziala

TECNOCAR GIPUZKOA
Erakusketa eta tailerra
Araba etorbidea z/g – Arrasate
943 79 22 67 –
Faxa: 943 71 27 38

Adi!
• **3** urteko garantia
• **0 km** aukera bereziak

*Prever plana barne.

HONDA
The Power of Dreams

HONDA CRV
27.300 eurotik
aurrera*

DIESEL BERRIA

BERRIA: 6 eserleku

HONDA FRV
20.600 eurotik aurrera*

HONDA ACCORD
Gasoli./Dies.
22.100 eurotik aurrera*

Oraingo martitzenetik zabalik dago Ormaiztegi–Zumarraga errepidea

Egunero 20.000 ibilgailu inguru ibiliko direla aurreikusi dute

IRATI AGIRREAZALDEGI

Hiru urteko lanen ostean, Ormaiztegi eta Zumarraga arteko errepide zatia zabalik dago. Beasain-Durango errepidearen bigarren tartea da honako hau; 5,5 kilometroko luzera du eta lau erraileko bidea da.

Martitzenean inauguratu zuten Beasain-Durango errepidearen bigarren tartea, Ormaiztegi eta Zumarraga artekoa. Guztira, bost kilometro eta erdi eraiki dituzte eta, aurreikusitakoaren arabera, egunero 20.000 ibilgailu joan-etorrian ibiliko dira handik.

Ia urtebeteko atzerapena izan du bide berriaren inaugurazioak. Horren arrazoia lurzoruak emandako arazoak izan dira. Errepidearen lehen zatia, Beasain eta Ormaiztegi lotzen dituena, 1997an inauguratu zuten; bigarren tartearen proiektua, berriz, 2002an hasi zuten. Tartean kontua geldirik egon zen, aurrekontu arazoak zirela eta.

BERGARARA 2010EAN

Autobidea 2010ean iritsiko da Bergarara, Deskargako mendatea tunel bidez igarota. Behin Bergaran, AP-1 erabili ahal izango da Eibarren A-8ra sartu eta hortik Bizkaia aldera joateko. Bizkaiko Foru Aldundiak ez dio lehentasunik eman Gipuzkoarekiko loturari eta ez du oraindik datarik jarri Kanpanzarko lotura egiteko.



GOIENKARIA
Gonzalez de Txabarrik ibilaldia egin zuen errepidean barrena beste agintari batzuekin.

Beasain-Durangoren epeak

- **Beasain-Ormaiztegi:** 1997an ireki zuten. Lau errailekoa.
- **Ormaiztegi-Zumarraga:** Martitzenean ireki dute. Lau errailekoa.
- **Zumarraga Bergara:** 2010ean ireki nahi dute . Lau errailekoa.
- **Bergara-Epele:** AP-1 autobidea hartu beharko da eta aurtengo uztailean da irekitzekoa. Lau errailekoa.
- **Epele-Kanpanzar:** Oraingo moduan, hiru errailekoa. Irekita dago.
- **Kanpanzar-Elorrio:** Proiektua idatzita dago, baina Bizkaiko Diputazioak beste lehentasun batzuk dituenez, gutxienez 2011. urtera arte ez dute irekiko.
- **Elorrio-Durango:** Oraingoz, Elorrioko saihesbidea eginda dago eta Abadiñotik Durangorakoa ere egiten dihardute. Beste zatien berririk ez dago.

Adegik eta alderdi politikoek leherketak gaitzetsi dituzte

Negoziaziorako bidean erasook "traba" direla esan dute

GOIENKARIA

Adegi Gipuzkoako Enpresarien Elkarteak bere gaitzespena azaldu du joan zen astean Gipuzkoako lau enpresatan izandako leherketen aurrean. Alderdi politikoek ere, gertakariok direla eta, euren nahigabea azaldu dute.

Domeka goizaldean Beasain, Elgoibar, Soraluze eta Bergarako lau enpresatan izandako leherketak direla eta, Adegik gaitzespena azaldu du: "Elkartasuna adierazi nahi diegu zuzendari eta langileei, Gipuzkoako enpresarien izenean", esan dute. Gaineratu dute hau: "Leherketak ETAk egin dituela frogatuko balitz, azaldu beharko luke eraikinak hondatzea, lanpostuak arriskuan ipintzea, enpresen bideragarritasunean eragitea eta enpresariak mehatxatzea den egoera honetan herriari egiten dion ekarpena".

Alderdi politikoek ere gaitzetsi egin dituzte leherketok. "Negoziaziorako eta bakerako bidea irekitzen ari den honetan, ulertezina deritzogu horrelako ekintzak egiteari". Horretan bat etorri dira PSE-EE, EAJ-EA, EB eta Aralar.

Bergara Aurrera plataformak ere gaitzespena azaldu du: "Bizi dugun gatazkaren adierazle da. Hori ez errepikatzeko bidea elkarrizketa da. Ez da zilegia balizko prozesuaz hitz egitea eta horrekin lotzea gertakariok, aurreko astean estatuaren aldetik hainbat eraso izan eta aipatu ez direnean".

Adegik elkartasuna adierazi die zuzendari eta langileei, enpresarien izenean

Urrezko Q saria Fagorreko bi lantegirendako

Oñatiko Fagor Industrialek eta Eskoriatzako Etxetresna txikien Fagorrek kalitatezko goreneko saria jaso dute. Hain justu ere, Euskalit Fundazioak ematen duen Urrezko Q saria jaso zuten joan den eguaztenean euren lantegietan, Ana Agirre Eusko Jaurlaritzako Industria Sailburuaren eskutik. Enpresako langile eta buruek hartu zuten parte ekitaldietan. Eskoriatzakoan (argazkian), Jesus Catania MCCko burua ere izan zen. /GOIENKARIA

LABUR

Baserri guneetan sortutako plastikoa batuko dute

Datorren martitzenean, maiatzak 24, batuko dute baserri inguruetan sortutako plastikoa (siloa batzeko erabiltzen dena, belar boletan erabiltzen dena, negutegietakoa...). Ibarreko herri guztietako baserri guneetan batuko dute, Elgetan izan ezik.

Diruz lagunduko dute gaueko bus zerbitzua

Gipuzkoako Diputazioak 44.250 euro emango dizkio Pesa bus konpainiari, Debagoienean asteburu gauetan antolatzen duen bus zerbitzua finantzatzeko. Hain justu ere, Eibar-Bergara-Arrasate-Oñati-Eskoriatza linearendako banatu ditu ia berrogeita bost mila euro horiek.

Gutunak

SOS! Euskararen etorkizuna arrisku bizian!

Eusko Jaurlaritzak oraintsu aurkeztu ditu Euskal Autonomia Erkidegoko DBH-ko (12-16 urte) ikasleei eginiko euskara maila azterketen emaitzak. Datuak kezkagarriak dira oso, D ereduko %68ak eta B ereduko %32,6ak dute soilik euskaraz erraztasunez eta arazorik gabe aritzeko gaitasuna.

Ikerketa honek berriro mahai gainean jarri du eskolak euskararen alde egiten duen lana osatzearen beharra. Eskolak bakarrik ez du bermatuko euskararen normalizazioa, ezta D ereduak ere. Ni neu eredu horren gaineko datuek kezkatu naute gehien: D ereduan, euskara hutsezko ereduan, aritu diren %32ak zailtasunak ditu euskaraz aritzeko. Argi geratu da ereduen sistema honek baduela non hobetu, baita D ereduak ere, eta eskolan egiten diren esfortzuek ezinbestean eskolaz kanpo egiten direnen beharra dutela benetan eragin nahi badugu.

Euskararen normalizazioa lortzeko eta gure hizkuntzak bizirauteko behar beharrezkoa duen estatus hori lortze aldera, ezinbestekoa da gizarteko funtzio guztiak euskaraz egiteko aukerak zabaltzea. Kontuan izan behar dugu haur eta gazteen mundua esparru estrategikoa dela normalizaziora bidean. Gaur haur eta gazte diren horiek izango baitira bihar euskararen etorkizuna idazten jarraituko dutenak.

Ildo honetatik, argi dago gure haur eta gazteek euskaraz burutu behar dituztela beren ikasketak, baina beren bizitzako beste alor batzuetan ere euskaraz aritzeko erraztasuna eta naturaltasuna behar beharrezkoak dituzte: maitatzeko, haserretzeko, jolas egiteko, ligatzeko... Gure haur eta gazteei euskaraz disfrutatzeko aukerak eskaintzen jarraitu behar dugu, beren beharrak euskaraz asetzeko aukera garatu behar da: ikuskizunak, ludotekak, gazte txokoak, udalekuak, aste bukaeretako ekintzak, elkartrukeak...

Euskara elkarteok aspaldi ekin genion eskolaz kanpoko kalitatezko eskaintza garatzeari. Bide honetan, gizarte osoaren konpromiso, indar eta babesa, erakunde publikoena barne, ezinbestekoak ditugu gurea bezalako euskara elkarteek helmugara iristeko azpiegitura izan dezaten.

Gure bailarak arazoei adarretatik heldu, antolatu eta gure helburuen alde ekiteko ahalmena erakutsi du askotan. Orain ere behar beharrezkoa dugu gaitasun hori benetako Euskal Herri euskalduna lortzeko. Guztion elkarlanarekin lor dezakegu!

ELENA HERRARTE (TXATXILIPURDI)
Arrasate

Euskal Harria?

Euskal Herritarrok beti goraipatu izan dugu gure herria, esanez, zelako polita den, zelako mendiak dituen, bertako itsasbazterrak... Baina azken urte hauetan, zer dabil gertatzen?

Nekazal lurrak ia desagertzear daude, gure inguru guztiak porlanez betetzen ari dira, makro-proiektuz inguratu gura gaituzte... Pasaiako portua, Eibar-Gasteiz autobidea, AHT, Pirinioetako korridorea, Itoizko urtegia...

Harrobiek daukate proiektu horiekin guztiekin harreman zuzena, euren lana beharrezkoa da-eta makro-obra horiek egiteko. Horregatik dabiltza, azken aldian, Udalatx barrutik zulatzen; bertatik harria ateratzen jarraitzeko. Ez naiz hasiko eztabaidatzen zer den hobea, harria harrobi barrutik edo kanpotik ateratzea. Zera aipatzea baino ez dut gura: ordua dela txikizio zoro hori geratzeko, eta baita ere makro-obra horien gainean Euskal Herrian benetako eztabaida zabala egiteko. Hausnarketa hori egin artean, makro-obra horiek guztiak geratu egin beharko lirateke. Guztion artean erabakitzeko zer-nolako Euskal Herrian bizi gura dugun eta horretarako zenbat errepide, urtegi, harrobi... behar ditugun.

Ezin ahaztu daiteke, dagoeneko, gure inguruko mendi eta larreetan, lurjabeei inongo informaziorik eman barik, AHT egiteko probak egiten dabiltzala. Horrela, agirian geratzen da, instituzioek obra horien guztien gainean zer nolako interesak dituzten, herritarron gainetik, informazioa ukatuz, obra horiek guztiak atzeraezinak izan daitezen, eta benetako eztabaida eta hausnarketa egon ez dadin.

Nik, behintzat, mendira joan gura dudan bakoitzean betiko abestia abesten jarraitu gura dudalako... Ikusi mendizaleak, baso eta zelaiak...

Hausnarketa baten defentsan txikizioa geratu!

ANTXOKA ELORZA ALTUNA
Debagoiena

Ezekiel adiskideari eta beste batzuei

Joan den apirilaren 30ean, larunbatean, izandako gertaera tamalgarrien aurrean, barruak eskatzen didalako, honako hitz hauek idaztera noa:

Gogoan dut txikitan nola joaten nintzen igandeetako paga hartuta Lopez jaunak zuen kioskora, hantxe beti, izozkien bere karrotxoa alboan zuela, Foruen Enparantzan. Orain, urte batzuk gehiago ditudanean, garbi daukat hark eman nahi izan zigun mezua: pazientzia handiz, eta apaltasunez lorpen handiak eskuratu daitezkeela.

Gure barkillero herrikoia, 40 urte baino gehiago zeregin horretan emanda, plazako dekoratuaren zati dela esan dezakegu eta orduko balore berberak transmititzen dizkigula, hasiberri baten ezaugarria den ilusio berarekin.

Lehen aipatutako egun edo gau horretan (eta ez da lehen aldia), bandalismoaren biktima izan zen (ez zen lapurreta hutsa izan), eta hori gainera, une horretan plazan zegoen hainbat lagunen begiradapean.

Lerro hauez baliatuz eta buru nauen tribuna honetatik, bihotz guztiarekin adierazi nahi diot neure, Korporazioaren eta Oñati osoaren izenean, gure solidaritatea eta laguntasuna, ganberrokeriatik baino bandalismotik gehiago duten gertakizun hauen aurrean.

Bide batez, herritar guztion elkarlan sendoa eskatu nahi dut, era honetako gertakizunak ikusitakoan, SOS Deiak-eko 112 zenbakira deitu eta haiek jakinaren gainean jar ditzaten (egun horretan egin zen bezala); izan ere, Udaltzaingoak bakarrik ezin baititu era honetako ekintzak eragotzi, herritar guztien konpromisoarekin ez bada. Bestalde, gau horietako gertaeretan materialki esku hartu zutenei eskatzen diet, behingoz utz diezaiotela horrelakoak egiteari, gure lagun Ezekielek ez du halakorik merezi eta.

Ezekiel adiskide, aurrerantzean ere zure kiosko inguruak alaitzen jarrai dezazun animatu nahi zaitut, hor izaten dituzun milaka guraso, haur eta baita helduak ere poztuz.

Lehen, beste batzuk esan dudanean, denda, taberna eta antzekoen jabeak nituen buruan, era honetako atentatuak jasaten dituzte horiek.

Besarkada bat.

ANDONI GARTZIA (OÑATIKO ALKATEA)
Oñati

Udalatx, jakiñe!

Honen gaiñien hiru edo lau bider idatzi dot azken hamar urtien, azkena *Gara* egunkarian 2004ko udazkenien. Ez nauken asmorik gehixauten idazteko, baiñe eretxixe eskatu dustie, eta barriro emungo dot. Harrigarrixe bada be, ondion nahaste haundixe dau Udalatx/Udalaitz dala eta. Zelan idatzi biher dan? Nik oso garbi dauket: Udalatx.

Leku-izenak idazteko arau berezixek egoten die. Normalien berbeta bateko berezitasunek errespetau egitten die. Esate baterako, Arrasaten:

1. H-rik ez: Arriaran.
2. Uri (eta ez hiri): Uribe.
3. Barri (eta ez berri): Uribarri.
4. Atx (eta ez haitz): Udalatx (eta beste asko, Mondragoetik urten barik: Artikulatx, Atxabal, Atxabalpe, Atxondo, Axgain, Axkibel, Axpe, Diagoenatxa, Erriatx, Santaagedatx...).

Azkena dala eta, Oñatin gauzak diferente die, eta zer esanik ez handik eguzkialdera. Oñatin "aitz" esaten da, eta horregaittik die han zuzenak Arkaitz, Enaitz, Zabalaitz, Aitxuri, Aizkorri, etab.

Lehen esan dot nahaste haundixe dauela. Batien Udalaitz irakurten da, bestien Udalatx. Esango nauke azken aldien Udalatx gehixau agerketan dala, eta seiñale ona da. GOIENKARIAren 198. zenbakixen, maietzien 6kuen, Jose Luis Encinasek "Utzi bakien Udalatx" artikulue idatzi auen. Zenbaki bereko Arrasate Press-en be Udalatx: "Arrasaten Udalatx Egunera joateko ohitura dagoen moduan, argazkiko koadrilak ohitura zuen Aitzorrotzeko jaira joateko".

(Joño!, eta "Aitzorrotz" horren gaiñien zer? Arrasateko eremutik urteten dot, baiñe nire ustez hor be garbi dau kontue. Eskoriatzan ointsu eztabaidan ibili die Aitzorrotz / Atxorrotz dala eta. Antza danez, Eskoriatzako Udalak barruko erabillerarako Aitzorrotz aukeratu ei dau. Baiñe udaletan erabaki okerrak be hartzen die. Arrasaten be ondion "Arimazuri plaza" ikusi izen dot. Astakerixa haundixaurik! Nik ez dauket dudarik: Atxorrotx).

Baten batek pentsauko dau nor dan Santagedako zoro hau bata ondo dauela eta bestie txarto dauela esateko. Jakin edozein moduten gure herri honek akademixa bat be badaukela, Euskaltzaindia deiketan dana, eta toponimia kontuetarako irizpide batzuk emun dittuena. Beste batzuetan be idatzi dot, baiñe barriro esango dot (ia azkena dan!): Euskal Mendizale Federakundiek "Euskal Herriko Mendien Katalogoa" liburuen 600 mendittik gora dakar, eta izenen ortografixiek Euskaltzaindiaren onespena dauko. Eta hor, jakiñe, Udalatx dator, Arangatxa, Atxabal, Usakoatxa, Atxondo, Axkorrigan, Lemoatxa, Untzillatx, Urragikoatxa, Krabelinatx eta abar datozen moduen.

Dedio!, Txerren, apustu errezak egitten dittuk. Eta "Arrasaten betidanik Udalaitz esan izen dok" bota dauenari esaiok berba egitteko pastoriekin, baserrittarrekin eta egunero-egunero euskeraz bizi dienekin. Eta kontue ondion argittu barik bajak, deittu afarire.

TXIPI ORMAETXEA
Gasteiz

Zorionak!

Zorionak eman nahi dizkiot Bergarako jaiak antolatzen jardun duen herritar gazte taldeari. Koadrilen eguna astelehenera pasatzea, Eskoziar taldea, ostiral gaueko disko festa, Betizu... ekartzea *azierto* bat izan da. Pena eguraldia.

M. UNAMUNO
Bergara

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate

ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta, Miguel Angel Elkoroberezibar, Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

SAILETAKO ARDURADUNAK
Iñaki Iturbe (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Natali Martínez, Mireia Larrañaga, Ziortza Martin, Imanol Elortza, Amaia Mundiñano, Itxaso Berezibar,

PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Karmele Etxabe

HARPIDETZA ETA BANAKETA
Marta Leturia

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola

ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ANTZUOLA

Autobusa jarri dute futboleko gazteen finala ikustera joateko, zapatuan

Lehen mailarako igoera lortu eta euren taldean lehenengo postuan sailkatu ondoren, AKEko gazte mailako futbol taldeari liga irabaztea bakarrik geratzen zaio denboraldia guztiz borobiltzeko.

Bihar, zapatua, jokatuko dute finaleko partidua, Donostiako Ekintza taldearen aurka; 17:30ean izango da partidua, Idiazabalen. Finala partidu bakarrean jokatuko denez, zelai neutralean izango da.

AKEko arduradunek autobusa antolatu dute; 15:45ean irtengo da, plazatik. /AINTZANE IRIZAR

U.M.

ARRASATE

Ekainean bukatuko dituzte anbulatorioa berritzeko lanak

Ekaineko lehen hamabostaldirako bukatuko dituzte anbulatorioko lanak. Hala jakinarazi digu anbulatorioko zuzendari Edurne Marañonek. Halaber, adierazi digu beheko solairuko eta eraikinaren fatxadako obrak bukatzea falta zaiela. Behin lan guztiak egin ostean, eraikinak itxura berria izateaz gainera, anbulatorioko zerbitzuen antolaketa egokitu egingo dute; hala, beheko solairuan eta lehenengoan lehen mailako asistentzia emango dute. Bigarren solairuan, berriz, zenbait espezialista izango dira: emagina, ginekologoa, otorrinolaringologoa, oftalmologoa... Gorengo solairuan, bestelako espezialistak izango dira: traumatologia, kirurgia, kardiologia, anestesia eta erreumatologia, besteak beste. Horrez gainera, beste igogailu bat ipini dute anbulatorioan. /U.M.

ARETXABALETA

Mendeurrena ospatzen hasiko da gaur Agustindarren elkartea

Aretxabaletako Agustindarren elkarteak 100 urte bete zituen iaz. Ospakizunak, baina, gaur hasiko dituzte. Donostiako Capilla Gregoriana del Coro Easo abesbatza izango dute komentuan, 19:30ean. Astelehenean, hilak 23, bestalde, Santa Rita eguna ospatuko dute: 11:00etan eta 19:00etan izango dira mezak.

Hurrengo ekitaldiak ekainean egingo dituzte. Hilaren 5ean, Joan Maria Uriarte gotzaina etorriko da meza ematera eta Aretxabaletako Abesbatzak eta Jose Manuel Azkue organo joleak egingo diote lagun. /M.A.

ARAMAIO

Pertsona nagusiei laguntzak emateko bi eskaintza abiarazi dituzte

Bi laguntza mota eska ditzakete pertsona edadetuek: batetik, oporretara joateko plazak; bestetik, etxeko komuna egokitzeko diru laguntza.

2005-2006ko oporren programaren kasuan, maiatzaren 23an, astelehena, zabalduko dute eskaerak egiteko epea, ekainaren 1era arte. Komuna egokitzeko laguntzen kasuan, berriz, etxean bakarrik edo beste pertsona nagusi batzuekin bizi direnei zuzenduta dago. Kasu horretan, eskaerak egiteko epea zabalik dago. Udalean eska daitezke biak. /U.M.

BERGARA

Kirolgune berriko 2. faseko lanak hasiko dira hurrengo astean

Udalak Antzibar enpresari esleitu dizkio Agorrosingo kirolguneko 2. faseko lanak, 5.135.400 euroko aurrekontuarekin. Datorren astean hasiko dituzte bigarren faseko lanak. Antzibarrek 2006ko maiatzerako lanak amaitzeko konpromisoa hartu du.

HURRENGO UDAN ZABALIK

Estalitako bi igerileku egongo dira gertu ordurako; horietako bat 21x25 m neurrikoa izango da eta bestea, berriz, 16,5x6,5 m ingurukoa da, haurrek-eta erabili ahal izango dutena. Aldagelak, gimnasioa eta frontoi txiki bat ere amaituta izango dira hurrengo urterako. Behin ekipamendua egin eta gero, datorren urteko ekainerako igerilekua zabalik egotea da Udalaren asmoa.

Azken faserako geratuko da kanpoko igerileku berria. Proiektuaren arabera, neguan estalkia izango duen jolas-igerilekua izango da. Inguruan, berriz, 2.000 m^2 inguruko berdegunea izango du. Alvaro Amezaga eta Jorge Muntaniola arkitektoak dira proiektuaren egileak.

2004-2007 aldiko Inbertsioen Aparteko Planaren barruan, Diputazioak 2.103.000 euroko diru laguntza eman dio Bergarako Udalari. 2006ko maiatza bitarteko lanen aurrekontua 7,1 miloi euro da. Udalak Antzibarri esleitu zizkion hasierako lanak, bi milioi eurotan. Instalazio zaharren eraikina bota ondoren, eraikin berriaren egitura eta ur zikinen hoditeria jartzeaz arduratu da Antzibar. /E.M.

Zertzelada

Udalak Antzibar enpresari esleitu dizkio lanak, 5.135.400 euroko aurrekontuarekin. Igerilekuko eraikina 2006ko maiatzerako egongo da amaituta

OÑATI

Katalanezko zerbitzua eta poster berriak ditu Turismo Bulegoak

Turismo bulegoak hainbat berritasun aurkeztu ditu. Batetik, bi poster berri atera ditu, bata Oñatikoa eta bestea Arantzazukoa; bestetik, aurrerantzean bost hizkuntzatan emango du zerbitzua.

Hemendik aurrera, Turismo Bulegoak zerbitzua katalanez ere emango dio bisitariari beste lau hizkuntzez gain: euskara, gaztelania, frantsesa eta ingelesa. "Bezero katalana hartzen ari den garrantzia dela eta, ezinbestekotzat jo du Oñatiko turismo arloak hutsune hau betetzea", dio sail horrek.

POSTER BERRIAK

Goi-denboraldirako, berriz, Arantzazuko eta Oñatiko poster berriak atera ditu. Biak salgai daude Turismo Bulegoan bertan, euro baten truke. Horrenbestez, bulegoaren *merchandising* arloa aberasten doa. "Zeramika tradizionala eta larruzko pilotak izateaz gain, neguan kaleratutako kamiseten arrakasta azpimarragarria izan da", diote arduradunek. /LEIRE KORTABARRIA

Oñatiko posterra.

ESKORIATZA

Elizateetako auzo bideen inbentarioa egin dute, Udalak eskatuta

Elizateetan tarteka bideen eta lurzoruen jabetzaren gaineko arazoak izaten dira. Arazo horiek saihesteko eta beste batzuk sor ez daitezen Udalak erabaki zuen udalerriko bide publikoak katalogatzeko lana egitea.

Nekazaritzako aditu Tomas Madinabeitiari eman zioten lan hori, eta dagoeneko bukatu du. Horren aurrerapena ikusgai dago udaletxean. Interesatuek hara jo beharko dute. Madinabeitiak jasotakoarekin konforme ez badaude, ekainaren 15era arte dute alegazioak jartzeko epea. /I.B.

ELGETA

Iraunkortasun foroaren bilera, eguen iluntzean udaletxean

Debagoieneko Udalek, Mankomunitatearekin elkarlanean, herrien garapen ekonomiko eta soziala ingurumenaren babesa eta errespetuarekin bateratzeko konpromisoa hartu dute. Horretarako, herrietan Tokiko Agenda 21 prozesua ipini dute abian. Elgetan, lan horretan jardungo duen 13 laguneko talde bat elkartu eta iraunkortasun foroa eratu dute. Gaiaren gaineko bi batzar egin dituzte, eta hurrengo bilera eguenean, hilaren 26an, izango da udaletxean, 19:00etan. /I.A.

LEINTZ GATZAGA

Dirua ateratzeko kutxazaina jarri dute udaletxeko hormetako batean

Gatzagarrek aurrerantzean herrian bertan atera ahal izango dute dirua, Kutxa entitateak kutxazaina jarri duelako udaletxeko hormetako batean. Astelehenean egin zituzten lanok, baina oraindik ez dago erabilgarri, argindarra, alarma eta telefono sarea falta dituelako.

GUREL-EKOAK MUTRIKURA

Baltzolatik etorri berri, Gurel-ekoek gertu daukate hurrengo irteera ere: Mutrikura joango dira ekainaren 4an, asteburua pasatzera. /X.U.

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2005eko maiatzaren 20a

Iñigo Lamarca

EAEko arartekoa

“Eskubideak onartzen dituzten legeak eta neurriak beti datoz berandu”

Astelehenean egin genion elkarrizketa Iñigo Lamarca EAEko arartekoari, justu Eusko Legebiltzarra eratzen hasi ziren egunean. Bulegoko leihotik ikusten zuen kanpoko giroa eta gurekin hitz egin eta segidan joan behar zuen Legebiltzarrera, prozesua bertatik jarraitzera. Giza eskubideen alorrean beti dagoela zer egina dio eta hurrengo gobernuari ere horretan jarraitzeko eskatzen dio.

OIHANA ELORTZA

Hilabete barru, ekainaren 25ean, egingo duzu urtebete arartekoa lanetan. Zer moduz joan da urtea?

Hona etorri baino lehen ezagutzen nuen erakundea; zuzenbide politikoko irakaslea izan naiz hamar urtez eta Gehitun, gay, lesbiana eta transexualen eskubideak defendatzeko egin dut lan, eta horrek sentsibilizazio bat ematen dizu eskubide guztiekiko. Hala ere, sartu naizenean ikusi dut erakunde honek egiten duena uste baino gehiago dela.

Uste baino lan gehiago eta lan zailagoa izan duzu?

Kasu bakoitzak du bere zailtasuna eta bere berezitasuna. Hemen ez dugu bereizketarik egiten, kasu batzuk ez dira beste batzuk baino garrantzitsuagoak; azken finean, bakoitzaren errealitateak eta kexak dutelako euren garrantzia. Esan liteke badaudela kexa batzuk giza talde bati dagozkionak, eta kexa horiek, giza taldearen kopuruari begira, zailtasun gehiago dutela, beharbada.

Lanari buruz, berriz, arartekoaren erakundeak egiten duen lana bi zatitan banatu dezakegu: hiritarrek aurkezten dituzten kexak tramitatu eta gai zehatz batzuei buruzko txostenak atera.

Zeintzuk dira kexa nagusienak?

Imajina daitezkeen gai guztiak izan dira kexatzeko arrazoi. Baina estatistikei kasu eginda, joan den urtean etxebizitzari buruzko kexak dira aurkeztu diren gehienak, nabarmen, gainera.

Hala ere, osasun zerbitzuak eta hezkuntzak ere kexa asko dituzte. Errepideen inguruko kexak edo ogasun arlokoak ere asko jasotzen ditugu. Orokorrean, administrazio publikoek ematen dituzten zerbitzu publikoei buruz daude kexa asko.

Nortzuek dute babes gutxien?

Gure helburua giza eskubideen defentsa eta babesa da. Batez ere lehentasuna ematen diegu gure ustez baztertuagoak dauden kolektiboei: emakumeak, ezinduak, etorkinak edo ijitoak, adibidez. Bilera asko izaten ditugu eta inspekzio lanak egiten ditugu ezagutzeko euren egoera ahalik eta sakonen.

Zein da gehien urratzen den giza eskubidea?

Zaila da bat beste baten gainetik nabarmentzea. Askoren artean, badakigu ETA izeneko erakunde bat badagoela biolentzia eta giza eskubideen aurkako mehatxu etengabea erabiltzen duena helburu politikoak lortzearren. Hiritar asko mehatxupean bizi dira eta horrek eskubideen urraketa esan nahi du. Bestetik, ETA egoteak beste ondorio bat du: Euskadin gainerako herrialdeetan baino atxilotu eta preso gehiago daudela. Komisaldegietan eta presondegietan ere arreta berezia jarri behar du herri defendatzaileak, atxilotu eta presoek ere giza eskubideak dituztelako. Tratuen aldetik salaketa asko jaso dira eta horiek aztertu edo ikertu behar dira; eta administrazio guztiei esan honelako salaketa bat jasotzean ikerketa egiteko eta neurriak hartzeko tratu txarrak ez emateko.

Honetaz gainera, berdintasun eskubidea ez da behar bezala betetzen. Diskriminazioak egoten dira pertsona homosexualen eta transexualen aurka eta baita gutxiengo etnikoen aurka ere, adibidez. Diskriminazio hauen atzean dago hiritar guztiok ez dugula pentsatzen gizaki guztiok duintasun berdina izan behar dugunik. Arrazakeria, sexismoa, homofobia eta xenofobia bizirik daude oraindik. Gizarte balioetan lan sakona egin behar dugula uste dut.

Administrazioen kolaborazio falta salatu duzu. Zertan?

Kexa bat aurkezten digutenean, horren inguruko informazioa eskatu behar diogu dagokion administrazioari. Kexa ondo eta ahalik eta epe laburrenean bideratzeko, administrazioek ahalik eta azkarren eta osatuen bidali behar digute guri eskatutako dokumentazioa. Zoritxarrez, ez da horrela gertatzen eta kexaren ebazpena asko luzatu daiteke. Berez, administrazioa ez dago behartuta gure gomendioa betetzen. Horrek esan nahi du, adibidez, guk arrazoia ematen badiogu hiritarrari gomendio bat emanez dagokion administrazioari eta administrazio horrek ez badu betetzen, hiritarrak baduela aukera auzitegietara joateko. Baina auzitegietara joateko epe batzuk daude eta litekeena da hiritarrak aukera hori galtzea. Beraz, uste dut gure gomendioak ahalik eta epe laburrenean egitea ona izango litzatekeela.

Joan den urtean arartekoan aurkeztu zituzten kexa erdiak tokiko administrazioen aurkakoak ziren. Arrasate eta Oñatiko udalek bina jaso zituzten eta bana Aretxabaleta, Bergara eta Eskoriatzakoek. Ze kexa dira hauek? Ze zerbitzuren aurka jarri zituzten?

HIRITARREN KEXA NAGUSIAK

“Etxebizitzaren inguruko kexak nabarmen gehiago dira, baina osasun zerbitzua, hezkuntza, edo errepideak ere izan dira hiritarrak kexatzeko arrazoi”

TOKIKO ADMINISTRAZIOEN AURKAKO KEXAK

“Udaletan jartzen dituzten kexak izaten dira, normalean, udal aparkalekuei buruz, TAO sistemari buruz edo gizarte zerbitzuei eta ezinduek dituzten arazo arkitektonikoei buruz”

GIZARTEAREN BALOREAK

“Zer balio dio berdintasunaren legeak egunero etxean senarraren jipoiak jasotzen dituen emakume bati? Homofobia, sexismoa eta arrazakeria bizirik daude eta lan handia dago”

ADMINISTRAZIOEN KOLABORAZIO FALTA

“Kexak tramitatzeko informazioa eskatzen dugu dagokion administrazioan, baina hauek ez dute beti informazio osoa eta epe barruan ematen”

GOIENKARIA

Joan den urtean 1.531 kexa jaso genituen eta asko tokiko administrazioen aurkakoak ziren, bai. Egia esan, ez dakit zehazki eskualde horretako udalei jarritakoak zer kexa diren. Baina adibidez, udal aparkalekuez kexa asko jasotzen dituzte udaletan eta baita TAO sistemaren funtzionamenduari eta isunei buruz ere. Bestalde, gizarte zerbitzuei buruzko kexak ere heltzen dira udaletara, herri askotan eurek kudeatzen dituztelako. Hauekin batera, ezinduen inguruko kexa dezente aurkezten dituzte udaletan, oraindik oztopo arkitektoniko asko dituztelako.

Kexatzeko bakarrik edo eskerrak emateko ere deitzen dute arartekora?

Kexa bat eskuartean dutela datoz hiritarrak beti, baina askotan informazio edo aholku eske datoz. Joan den urtean planteatu zuten hiru gaietatik bat tramitatu genuen kexa bezala. Kexa bat tramitatzen dugunean inkesta bat ematen diogu kexa aurkeztu duenari arartekoaren lanari buruzko iritzia jakiteko. Eta satisfazioa oso altua izan da. %80ak baino gehiagok ondo iritzi dio gure lanari, nahiz eta arrazoirik ez eman. Hirutik kasu batean eman diogu arrazoia hiritarrari.

Gaia aldatuz, oraintxe onartu du Madrileko gobernuak homosexualen arteko ezkontza. Berandu dator?

Eskubideak onartzen dituzten legeak beti datoz berandu, horrek esan nahi duelako lehenagotik bazegoela diskriminazio egoera bat, eta egoera hori bizi duen kolektiboarendako beti dator berandu. Berandu izan zen emakumeari bozka eskubidea onartzea eta berandu etorri dira berdintasunaren neurriak, hainbat eta hainbat lagunek ez dutelako berdintasun horretaz disfrutatu.

Homosexualekin ere berdin gertatu da. Mendeetan zehar homosexualak baztertu, iraindu eta erasotu egin dituzte. Horiendako berandu dator lege hau, dudarik gabe. Baina, hala ere, nik uste dut gutxiengo guztiendako historiak badu-la bere momentua eta esango nuke aldaketa historiko batean gaudela homosexualendako. Gasteizko Legebiltzarrak eta Nafarroako Parlamentuak onartu zuten izatezko bikoteen legeak berdintasuna onartu zien homosexualei eta orain osatuko dira Estatuan onartuko duten kode zibilaren erreformarekin. Honekin, uste dut, homosexualei euren berdintasuna eta duintasuna onartzeko bidea hasi besterik ez dela egin. Oraindik lan izugarria egin behar da gizartean homofobia erabat ezabatzeko.

Orain homosexualek ezkontzeko eskubidea dugu, baina duela gutxi Katalunian eta Andaluzian bi gaztetxok esan zuten eskolan *bullying* egoera jasaten ari zirela homosexualak zirelako. Emakumeen kasuan ere berdin gertatzen da: Eusko Legebiltzarrean emakume gehiago egongo dira gizonezkoak baino, lehendabiziko aldiz, berdintasunaren legeari esker. Baina zer balio dio horrek etxean egunero senarraren jipoiak jasotzen dituen emakume bati? Horregatik, berriro diot lan handia egin behar dela, oraindik, gizarte baloreak aldatzen.

Arartekoaren irudia indartu nahi duzula diozu. Nola?

Batetik erakundea hobeto ezagutaraztea da helburua, hiritarrak jakin dezan non gauden eta nola lan egiten dugun. Bigarren helburua da egiten ditugun ekimenak indartzea. Alor honetan egiten dena ona bada, saiatu behar dugu gehiago egiten. Utopikoa izan arren, helburua da euskal hiritar denek eduki dezatela giza eskubideen arloan babes bera eta errespetatuak eta bermatuak izan daitezela guztien eta bakoitzaren duintasuna, berdintasuna eta askatasuna.

Beste libururik idatziko du Iñigo Lamarcak?

Badut sena eta gogoa ere beste liburu bat idazteko. Hala ere, arartekoa naizen bitartean, datozen bost urteetan, ez dut idatziko.

GOIENKARIA

“Behatoki lan sakona egin beharko luke gobernu berriak”

Nolako gobernua izatea nahi duzu datorren lau urtetakoa?

Eusko Legebiltzarrak hautatutako kargua naiz eta Eusko Legebiltzar osoaren esanetara nago. Erabat independentea eta inpartziala izan behar dut, beraz, datorren gobernua ona eta txalogarria izango da, edozein koloretakoa delarik.

Eta zer eskatzen diozu eratzen ari diren gobernu berriari?

Eskatzen diot giza eskubideen alorrean beti dagoela gehiago egiteko eta egiten den guztia beti dela gutxi norbaitendako. Beraz, datorren gobernuak ere, edozein gobernuk bezalaxe, oso gogoan izan behar ditu errealitate guztiak eta behatoki lan zabala eta sakona egin behar du. Informazioa ahalik eta eguneratuen izan behar du eta arartekoaren laguntza izango du horretan. Guztion artean ikusi behar dugu euskal gizartean zein hiritar talde dagoen ahulezia, defizit, egoera batean bere eskubideei dagokienez. Horren arabera, neurriak jarri beharko ditu egoera gutxitu horiek ahalik eta lasterren bermatuta izan ditzaten dagozkien eskubideak.

Bestalde, estatu soziala egoera delikatuan dagoela diote adituek eta uste dut garrantzitsua dela estatu sozialari buruzko hausnarketa sakona egitea.

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2005eko maiatzaren 20a

Artzainek gorde duten kirola, bote luzea, Oñatin

Bihar goizean egingo dute eskola arteko bote luzeko topaketako azken jaia, Oñatiko plazan

XABIER URTZELAI

Gipuzkoa osoko hamasei herriko gaztetxoak etorriko dira bihar, zapatua, Oñatira *botuluzia*-n egitera. Kutxak antolatu duen bote luzeko 2. topaketako azkeneko jaia izango da, eta 10:00etan hasi eta eguerdira arte ibiliko dira horretan Oñatiko plazan.

Euskal pilotak duen jokatzeko modurik zaharrena da bote luzea. Egun desagertzeko zorian dago. Zuberoan gorde dute, eta bere oroitzapena artzainen ohiturei atxikita datorkigu. Poliki-poliki hasi dira lanean kirol horrek behar duen lekua berriro ere har dezan, eta Xibakoak dabiltza horretan, buru-belarri. Bihar goizean beste bultzada bat emango diote Oñatin, herriko hiru ikastetxetako ikasleak Gipuzkoatik etorriko diren beste herri askotako ordezkariekin batera lehiatuko dira-eta, jolas giroan.

Egin beharreko galdera, baina, ondokoa da: zelan jokatzen da bote luzean?

XIBA

Bote luzea ez da ikusleei begira egindako jokoa, jokalariei zuzendutakoa baizik.

TENISAREN JATORRIA, BOTE LUZEAN

Hori da adituek uste dutena. Hasteko, ezinbestekoa da esatea bote luzean jokatzeko ez dela hormarik behar. Bi talde, bost jokalarirekin osatuta, kantxaren alde banatan jarriko ditugu. Tartean marra imaginario bat dago, *eskasa* izenekoa eta mugitu daitekeena, eta hortxe dago jokoaren gakoa. Talde batek besteari botako dio pilota, botea emanda, airez... eta halako batean, arrasean botako dute pilota, kontrarioaren eremura. Horrenbestez, pilota kontrarioaren eremutik gero eta harantzago irten, hobeto, *eskasa* izeneko marra imaginarioa hortxe ezarriko dutelako. Talde bakoitzak gero eta eremu txikiagoa izatea izango du helburu, eta erasotzaileak kontrarioaren eremua txikitu egin duenez, taldeak lekuz aldatuko dira, eta eraso egin duenak eremu txikia hartuko du. Hori, baina, orokorrean emandako azalpena da, bote luzea hori guztia baino askoz ere konplexuagoa da-eta.

Taldeen artean ez dago kontaktu fisikorik, baina hartu-eman handia egoten da

KIROL ZAHARRAREN EZAUGARRIAK

Bote luzeak baditu hainbat ezaugarri kirol zaharra dela erakusten dutenak. Gaur eguneko kirolek ez dituzte joko-arau korapilatsuak, euren helburua ikusleendako ikusgarri izatea da-eta. Bote luzea, baina, ez dago ikusleendako pentsatuta, jokalariendako, baizik. Hala, behin arauak jakinda, joko oso erakargarria da, trikimailu asko dituelako. Horrekin batera, Xiba elkarteak esan digu, taldeeen artean kontakturik ez dagoenez, eta jokoan zehar hartu-eman handia egoten denez, taldeen artean giro paregabea izaten dela.

ARRASATEN, HERRI-KIROL TOPAKETAK

Lanpetuta ibiliko dira bihar Xibakoak, Arizmendirekin batera herrien arteko euskal jokoen 2. topaketa egingo dute-eta Arrasaten. Kilometroen egitarauaren barruan dago kirol hitzordu hori, eta arratsaldean egingo dute, 17:00etan, Jokin Zaitegi plazan. Hantxe elkartuko dira Arizmendiko bi ordezkari eta kanpotik etorriko diren beste hamar talde. Gainera, herri-kirol probetan lehiatzen diren kirolariak izango dira hainbat taldetan.

Taldekideak trontzan, sokatiran, txingetan eta beste hainbat herri probetan lehiatuko dira. Hori bai, Oñatin egingo duten bote luze topaketa gaztetxoenei zuzenduta badago, Arrasateko topaketa nagusiagoendako izango da, 16 urtetik gorakoek osatuko dituzte-eta taldeak.

Edozein premiatarako:
- Antzutasuna
- Erditzeak
- Antisorgailuak
- Menopausia
- Ekografiak (4D)
- Titietako gaixotasunak
- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Hezur dentsitometria

Zure zerbitzura:
- Antonio Estomba
- Fernando Cristobal
- Alfredo Otalora
- Jose M. Gomez
- Ainhoa Larrea
- Domingo Murgiondo
- Miguel Gabarain
- Maria Jose Ruiz
- Fatima Azkue
- J. Rodriguez
- Mikel Gorostidi
- Mikel Arroyo

Policlinica Gipuzkoa

ARRASATE
Zerkaosteta 17
943 79 20 18
Donostia: 943 30 82 08
Eibar: 943 12 10 2
Irun: 943 61 78 88

CG
CONSULTORIO GINECOLOGICO

Kirolabur

ARRASATE/GALEPER-TIROA, BIHAR

Leintz elkarteak antolatuta, galeper-tiro txapelketa egingo dute bihar, hilerriaren gainean dagoen zelaian. 11:00etatik 12:00etara entrenamendu saioak egingo dituzte, eta 12:00etatik 13:00etara egingo dute txapelketako lehenengo saioa. Bazkaldu eta gero jarraituko dute, arratsaldeko 18:00ak arte.

ARETXABALETA/SQUASHEAN, FERREIRO ONENA

Alberto Ferreiro eibartarrak erakutsi zuen eguaztenean jokatutako finalean txapelketako onena izan dela, beste behin. Garikoitz Ibartzabal izan zuen kontrario, baina oñatiarrak ezer gutxi egin ahal izan zuen (3-0). 3. eta 4. postuetako norgehiagoka atzeratu egin dute.

DEBAGOIENA/PREFERENTEN, AUKERA GUTXI

Joan den astean galdu arren, zenbakiek esaten dute oraindik badagoela Bergara preferentean geratzeko aukeraren bat, txikia izan arren. Errenterian jokatuko dute bihar, Touring-en kontra (17:00etan). Mondrak Ordiziaren bisita izango du bihar (16:30ean). Domekan, berriz, Real Union joango da Oñatira (16:30ean), eta aretxabaletarrek Oiartzun izango dute bisitari (16:30ean).

ARRASATE/3X3 SASKIBALOI TXAPELKETA

Leintz Eskola Kirolekoek, Tau Baskoniaren eta Ointxe Saskibaloi taldearen laguntzarekin antolatu dute, bihar, Laubiden egingo duten 3x3 Saskibaloi Txapelketa. Guztira, 120 talde espero dituzte, eta 10:00etan hasita, egun osoan egingo dituzte norgehiagokak. Hiruko jaurtiketen eta jaurtiketa libreen txapelketa ere egingo dute.

"Zierbena izango da txapelduna, bizkaitarren aurka jokatzen dute"

X.U.

Bigarren urtez denboraldi biribila eginda, Eskoriatzako areto futbol taldeak mailaz igoko du aurten ere, eta hori ospatzeko Eskoriatzako Udalak harrera egingo dio domeka eguerdian, Udaletxean. Lehenago, Ligako azken partidua izango dute, bihar, zapatua, Elorrion.

Emozio handikoa izan beharko luke azken jardunaldiak. Zierbena lehenengo postuan dago, baina atzetik datoz eskoriatzarrak, puntu bat gutxiagorekin. Hala ere, Manolo Muñozen mutilek argi daukate ez dela sorpresarik izango. "Zierbenak jokoan ezer ez daukan Lagun Onak taldearen aurka jokatuko du , eta bizkaitarrak dira bi taldeak. Eurendako izango da txapelketa".

Eskoriatzak, berriz, hirugarren lekuan dagoen Elorrio izango du bihar kontrario (18:45, Elorrion). Dena dela, txapelketako lehenengo postua lortzen ez badute ere, Eskoriatzako taldeak txalotzeko moduko denboraldia egin du, ibarreko jokalariekin jokatuz: "Hori oso garrantzitsua da guretako. Gernikak, adibidez, azken lau jardunaldietarako jokalari brasildar bat ekarri zuen. Eta Zierbenako jokalariei dirua ematen diete. Manolo Muñoz taldean dagoen artean, Eskoriatzak ez du horrelakorik egingo".

Maila handiagoko ligan egongo badira ere, taldeak ez du aldaketa handirik egingo datorren urtera begira. Ez dira jokalari bila hasiko. Norbait ate joka etortzen bada, ikusi egin behar. Hori bai, gazte mailako taldea aterako dute, harrobia gehiago lantzeko.

ULMA
ULMA Forja, Koop. Elk.
Oñati

OHIKO BATZAR NAGUSIA
D E I A

Eguna: 2005eko maiatzaren 27a
Ordua: 15:00etan lehen deialdia eta 15:30ean bigarrena
Tokia: Oñatiko Kultura-etxea

GAI ZERRENDA
1. AURREKO AKTAREN ONARTZEARI BURUZKO TXOSTENA ETA BATZAR NAGUSI HONEN AKTA ONARTZEKO BAZKIDEAK IZENDATZEA
2. 2004KO EKITALDIKO MEMORIA IRAKURTZEA ETA ONARTZEA, ETA 2005EKO GESTIO PLANA BERRESTEA
3. ULMA TALDEARI BURUZKO TXOSTENA
4. 2004KO EKITALDIKO KONTUAK ETA BALANTZEA AZTERTZEA ETA, HALA BADAGOKIO, ONARTZEA. AUDITORETZA ERAKUNDEA IZENDATZEA
5. SOBERAKIN GARBIAK BANATZEA
6. HEZIKETAKO ETA KOOPERATIBA-SUSTAPENEKO FONDOEN (H.K.S.F) ERABILERA
7. EKONOMI ARAUBIDEKO ESTATUTU-XEDAPENAK
8. ORDAINKETA SISTEMA BERRIA
9. EGITURAZ GAINDIKO ERAKUNDEEKIN ZERIKUSIA DUTEN GAIAK
10. KONTSEILU ERREKTOREAREN JAKINARAZPENAK
11. ZAINTZA BATZORDEKO KIDE BAT BERRITZEA
12. KONTSEILU SOZIALEKO KIDEAK BERRITZEA
13. GALDERAK ETA ESKAERAK

Oñati, 2005eko maiatza

OHARRA: Kontabilitate Liburuak eta Kooperatibako Barne Araudiaren artikuluen aldaketei buruzko informazioa bazkide guztien eskura daudela jakinarazten da.



ATE IREKIAK
Maiatzaren 25ean
18:30etatik 20:00tara

AURRE MATRIKULA
Ekainaren 1etik 8ra

Isan etorkizuna gertuago duzu

Bergarako Migel Altuna institutuan, Ian etorkizuna gertuago duzu!
75 urte daramatzagu kalitatezko profesionalak gertu-gertutik hezten.

Ikasle-irakasle arteko harremana lantzen dugu, punta puntako azken teknologietara egokituta gaude eta gainera sekulako erraztasunak ematen dizkizugu zure ikasketak bertako zein atzerriko enpresetan praktikan jartzeko.





GOI MAILAKO ZIKLOAK
• Administrazio eta Finantzak
• Erregulazio eta Kontrol Sistema Automatikoak
• Mekanizazio Bidezko Produkzioa
• Proiektu Mekanikoen Garapena
• Plastiko eta Kautxugintza

ERDI MAILAKO ZIKLOAK
• Mekanizazioa (goizez eta gauez)
• Ekipo eta Instalazio Elektroteknikoak
• Plastikoaren eta kautxuaren eraldaketa
• Administraritza kudeaketa

943 76 24 91
943 76 38 40
www.imaltuna.com

75 urte hezten

Zatoz eta ezagutu gure espezialitate eskaintza zabala!

MIGUEL ALTUNA INSTITUTUA
Ibargarai 1 • 20570 • BERGARA

iparraldea

oñatin

Maiatzaren 25etik 28ra

Maiatzaren 25ean
10:45 / Santa Anan: Azika txontxongiloak.

Maiatzaren 26an
19:30 / Kultura etxean: Pelikula emanaldia Paxkal Indo eta Aitor Arregi zuzendariekin.

Maiatzaren 27an
22:30 / Gaztelekuan: Rock kontzertua Kolpe-K eta Malenkonia taldeekin.

Maiatzaren 28an
Goizean zehar: Ezpeletako fanfarrea, Baigorriko dultzaineroak eta Amikuzeko joaldunak.
11:30 / Plazan: Iparraldeko eta Hegoaldeko janari eta edari dastaketa.
12:30 / Unibertsitatean: Barrikada sinbolikoa
13:00 / Plazan: Baigorriko dultzaineroak, Urdiñabeko dantzariak, Oñatz dantza taldea, Oñatiko trikitilariak, Sustrai Colina eta Amets Arzallus bertsolariak, Atabalariak.
19:00 / Gaztelekuan: Beltzeria&Cia ikuskizuna, Asisko Urmeneta eta Marko Armspach komikilariekin eta Antton Luku eta Mattin Irigoien antzezleekin.
22:30 / Kiroldegian: Hiru Truku, Maddi Oihenart, eta Etxartarrak.

Laixan · Oñatiko Udala · FAGOR · ULMA · Gipuzkoako Foru Aldundia Diputación Foral de Gipuzkoa · GARAIA · Euskaltel · CAJA LABORAL EUSKADIKO KUTXA

Goienka 2a

Egubakoitza / 2005eko maiatzaren 20a

Kultura eta aisialdia

Maiatzaren 20tik 27ra

Igor Guenetxea bere autoan, Legazpiko proban.

ALDAPA HANDIARI, MOTOR ZORROTZA

Ibarreko trialzaleak inoiz baino indartsuago dabiltza, eta oztopoen aurrean adoretsu

Motorraren munduan zaletasun bat izateko modua, diru askorik gastatu gabe; edo asteburu baten gustuko jarduera eginda –autoarekin putzuetan, lokatza artean, maldan gora eta behera… betiere, zinta ukitu barik edo besteek baino azkarrago ibilita– primeran pasatzeko modua. Horra hor Debagoieneko trialzaleek zer aurkitzen duten kirol horretan hain erakargarri.

Zikina da, zaratatsua, larregiko garestia izan gabe ez da merkea, eta autoa kolpatuta edo sasoi aurretik zaharkituta uzten du. Eta hala ere, lur orotariko ibilgailuen trial txapelketek eta erakustaldiek zale amorratuak dituzte Euskal Herri osoan, Debagoiena barne. Gurean, batik bat, Leintz bailaran eta Oñatin daude zaleak. Badaude beterano batzuk, zenbait urte daramatzatenak probarik proba, baina urtero egiten du bat jende berriak. Horrelako indarrarekin, federatuta oraindik ez, baina elkarte bat sortu dute: Eskomotor. Elkarte horrek motorraren inguruko hainbat kirol batzen ditu, eta horietako bat da trialа.

Debagoiendarrek, gainera, esku hartzeaz gain, irabazi ere egin dute. Bi txapeldun izan ditugu azkenaldian: Igor Guenetxea eta Andoni Arenaza, aretxabaletarrak biak; lehenengoak Arbizuko proba irabazi zuen, eta bigarrenak, Erandiokoa.

Hala ere, triala ez da futbola, eta minoritario izatearen oztopoak ere baditu. Horretaz guztiaz berba egin dugu ibarreko pilotuekin. **/14-15**

LEIRE KORTABARRIA

AZALA: IÑAKI ITURBE / ARGAZKIAK: AINTZANE IRIZAR ETA AITOR ATXA

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2005eko maiatzaren 20a



ZALETASUNAK/ 4X4 TRIALAK JARRAITZAILE ASKO DITU LEINTZ BAILARAN ETA OÑATIN

Trialaren alde lau eta malkartsuak

ZALEEK SUTSUKI BIZI IZATEN DUTE TRIALA, BAINA ZAILTASUNAK EZ DIRA GUTXI

LEIRE KORTABARRIA

Trialak gero eta zale eta parte-hartzaile gehiago ditu gurean. Parte-hartzaile txapeldunak, gainera: Euskal Herriko proba garrantzitsuenetako bi aretxabaletar banak irabazi dituzte. Hala ere, dena ez doa bide onetik: ikusteko gertu jende asko dago, baina antolatzeko, ez hainbeste.

Trial txapeldunak ditugu Debagoienean: apirileko lehen asteburuan, Arbizun, Etxarri-Aranatz inguruan, halako proba bat irabazi zuen Igor Guenetxeak, eta maiatz hasieran, Erandioko trialeko garaile izan zen Andoni Arenaza, biak ala biak aretxabaletarrak. Proba horiek Euskal Herrian egiten direnen artean garrantzitsuenetakoak dira. Leintz bailaran da indartsuen trialarekiko zaletasuna, eta garaipen horiek are gehiago sendotu dute. Bailara horretakoek talde bat ere eratu dute, Eskomotor, motorraren inguruko denetariko kirolak batzen dituena; tartean, 4x4 autoen probak, eta talde horretako kide dira Aretxabaletako bi txapeldun horiek eta beste gidari asko ere.

Debagoiendar horiek oso pozik daude euren lorpenekin. Lan handia, denbora asko eta diru asko samar eskatzen duen zaletasuna da, eta nabari da lasterkariek benetan bizi egiten dutela. Andoni Arenazak honela diosku: "Niretako eta kopilotuarendako, esperientzia itzela izan zen Erandiokoa. Antolaketa, parte-hartzaileen maila, sariak... kontuan hartuta, Euskal Herriko bigarren garrantzitsuena da. Espainiako txapelduna bigarren geratu zen, eta neu txapeldun... nik jarraitu izan dudan haren gainetik geratzea izan da nire helburuak beteta ikustea". Kirola egin eta probak irabaztearen gainetik, euren asmo nagusia da "dibertitzea", eurek dioskuten bezala.

Debagoienean zaletasuna pilpilean dagoen beste gunea Oñati da. Han ere sei bat laguneko taldea dago, proba guztietan esku hartzen duena. Eskoriatza eta Aretxabaleta ingurukoek ez bezala, eurek ez dute elkarterik sortu. Iñaki Galdosek, Oñatiko taldeko kide batek esaten digunez, hango zaletasuna sasoi baten Oñatin antolatzen ziren autokross probetatik dator. "Probetarako lursailak topatzea gero eta zailagoa zelako utzi genion. Orduan, batzuek autoen arloan jarraitu genuen, beste batzuek motorrarenean... Guk ondo pasatzen dugu. Diru gutxi gastatuta, motorraren munduan jarraitzeko modu bat da", esaten digu Galdosek.

Bai debagoiendarren artean, baita gainerako parte-hartzaileekin ere, giro bikaina izaten dute: "Elkar ezagutzen dugu horretan gabiltzan denok, eta ez dago lehiarik. Adibidez, probak asteburutan egiten direnez, denok batera bazkaltzen dugu domekan, gidariok eta bat egin nahi dutenek", dio Igor Guenetxeak.

LAGUNTZARIK EZ

Pasioa, asteburuan ondo pasatzea, lagunarteko giro jatorra, gero eta ikusle gehiago eta zaleak batzen dituen elkarte bat, Eskomotor... baina trialaren munduak baditu zangak ere. Sakonena, antolakuntzakoa.

Eskoriatzan, hain zaletasun handia izanda, iaz halako proba bat antolatu zuten, herriko jaiak aitzaki hartuta. Aurten, bigarrenez egin nahian dabiltza... eta hor datoz oztopoak.

Arazo nagusia da lursail egokien falta. Halako probak egiteko, askotan, obrak egiten ari diren eremuak eskatzen dituzte. Iaz lortu zuten halako bat Eskoriatzan, baina aurten, ezinean dabiltza. "Hori da beharrik handiena. Lursail bat topatuz gero, dena errazagoa da, baina inor ez dago uzteko gertu. Arazoa da inguru honetan ez dagoela terrenorik", dio Igor Guenetxeak, bera ere antolatzaile lanetan dabileta. Hasiak dira horren gainean batzarrak egiten, eta etxe batzuk eraikitzekoak diren lursail batekin saiatuko dira, ea zorterik duten. Oñatin ere, autokross txapelketak antolatzeari utzi zioten lurra lortzeko arazoakengatik.

Ez da hori Eskomotorrek duen kexa bakarra. Gaineratzen duten moduan, "ikusteko gogo handia du jendeak, baina antolatzeko, berriz, oso gutxi. Iaz antolatu genuen probak arrakasta izan zuen eta jende asko etorri zen, baina orain ez dugu inongo laguntzarik. Alde guztietatik zailtasunak ipintzen dizkigute, eta egindako lana ez dizu inork eskertzen", esaten dute elkarteko kideek. Lagundu gura duen jendea ondo hartuko dutela diote. Hori bai, ez dira desanimatzen: "Eskoriatzakoa antolatzen badugu, ikusgarria izango da", diote.

AUTO ZAHARRAK APROBETXATU

Zailtasun guztien gainetik, Debagoieneko trialzaleek probetara joaten jarraituko dute. Euskal

Emakume bat bolantean

Trialak gizonen kontua izango ote? Ikusleen artean, emakumezkoak gero eta gehiago agertzen ari dira. Bolantean, ordea, gizonezkoek jarraitzen dute jaun eta jabe, motorraren inguruko beste arlo guztietan bezala. Oñatiko trialzale taldea autokrossaren mundutik etorri zen, eta horretan ibiltzen zen emakume bat bazegoen: Monika Muñoz oñatiarra. Autoak betidanik gustuko izan, eta bera ere probetan lehiatzen hasi zen. "Emakumea nintzelako barre eta guzti egiten zidaten, baina zenbait proba irabazi nituen. Bergaran, 40 lehiakideren artean neu izan nintzen garaile", dio Monikak.

Beste oñatiar batzuek ez bezala, Monikak ez du autokrossetik trialera jauzia egin. Hala ere, ikusteko gustatzen zaio triala, eta euskal zirkuituko hainbat saio ikustera joaten da.

Egutegia

Euskal Herrian nahiko egutegi txukuna dute trialzaleek. Hara hitzordu garrantzitsuenak:

- **Apiril hasieran, Arbizun. Txapelketa da.**
- **Legazpiko jaietan, maiatz hasieran. Erakustaldia da.**
- **Erandioko txapelketa, maiatz hasieran.**
- **Ekain erdialdean, Ezkio-Itsasoko txapelketa.**
- **Uztailaren 9 eta 10ean antolatu nahi dute Eskoriatzan.**

AINTZANE IRIZAR

Igor Guenetxeak (ezkerrean) Etxarri-Aranazko proba irabazi zuen apirilean.

AINTZANE IRIZAR

Andoni Arenaza (eskuman) izan zen Erandioko Trialeko txapelduna, maiatz hasieran.

Herrian nahiko egutegi osoa dago. Hemengo berezitasuna da, ordea, proba horiek ez direla inongo txapelketatarako puntuagarriak. Espainian, adibidez, pilotuen sailkapen orokor bat dago eta txapelketa jokatzen da. Gurean, gai hori eztabaidatu da, baina oraingoz, asteburu bakarreko probak edo erakustaldiak izaten dira. Hala ere, sariak ederrak izaten dira: Erandiokoan, adibidez, 3.000 euro banatu zituzten saritan, eta 600 euroko takodun erruberak. Espainiako pilotu asko etortzen dira proba horiek jokatzera.

Buru-belarri kirol horretan dabiltzanek diru asko inbertitzen dute euren ibilgailuetan. Motor kirol gehienak dira garesti samarrak, eta 4x4koen trialena, garestiena izan gabe, ez da salbuespena. Autoa propio horretarako erosita dator gastu handiena, baina egin beharreko aldaketak ere ez dira mauka. Takodun gurpilak ipini, esekidura igo, transmisioa moztu... gutxieneko inbertsio estra 600 eurokoa da. Hortik aurrera, nahi bezain beste gastatzeko moduko kirola da: 20.000 euro edo gehiago.

Debagoiendar gehienak ez dira gastu horietan sartzen. Gehienek lehendik baserrirakoeta erabiltzen zuten auto zaharra aprobetxatu dute, edo bigarren eskuko bat erosi, 3.000 euro ingurukoa, adibidez. Norberak egiten dizkio aldaketa eta konponketa guztiak. Andoni Arenazak dioenez, "dirua baino, eskulana da gehien balio duena". Mundu txikia denez, zaleek elkarri laguntzen diote autoaren mantenuarekin.

Bestetik, autoak behar dituen gehigarri edo ordezko piezak topatzea ere ez da zaila: Debagoienean ez dago horien saltzailerik, baina Interneten eskaintza handia dago.

GRAFFITIAK/ EUSKAL HERRIKO II. GRAFFITI LEHIAKETA

GOIENKARIA

4-6 metroko zabalerako eta 2-3 metroko altuerako hormak margotuko dituzte.

Graffiti lehiaketa antolatu dute

GOIENKARIA

Euskal Herriko II. Graffiti Lehiaketa antolatu du Topaguneak. Parte hartu nahi dutenek uztailaren 1era arte bidali ahal izango dituzte zirriborroak. Aukeratutako lan onenekin, finala uztailaren 16an jokatuko da Getxon.

Getxoko hormetan margotuko dituzte euren lanak graffitilari onenek. Topaguneko gazte sailak antolatu du txapelketa, gazteen aisialdi eta kultura-beharrei erantzun nahian. Asteburuetan.com da Topaguneak Euskal Herriko gazteendako garatzen diharduen egitasmoetako bat eta haren barruan kokatzen da lehiaketa hau. Iaz lortutako arrakastak eskatuta, bigarrena antolatzea erabaki dute. Iaz, Elgoibarren egin zuten finala eta 90 gaztek hartu zuten parte. Guztira, 30 horma-irudi zirriborro jaso ziren.

1.200 EUROKO LAU SARI

15 urtetik gorakoek parte hartu ahal izango dute lehiaketan, bakarka nahiz taldeka; teknika librea izango da eta baita gaia ere; 4-6 metroko zabalera eta 2-3 metroko altuera izango dituen horma margotzeko izango da aurkeztutako zirriborroa.

Finalerako hamar lan onenak aukeratuko dituzte eta 1.200 euroko lau sari banatuko dituzte. Zirriborroak honako helbidera bidali beharko dira: Topagunea Euskara Elkarteen Federazioa. Arlozabal kalea, 8 bis, 1.C. 48.220 Abadiño (Bizkaia).

LASAGABASTER
www.lasagabaster.com
Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

Maiatzak 20-27

Leire Kortabarria / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com** • Tel.: **943 76 03 97** • Faxa: **943 76 29 77**

MATRIKULAK

BERGARA

► **UNED-Bergarako** udako ikastaroetan izena emateko epea zabalik dago ekainaren 4ra bitartean. Laugarren urtez antolatzen dituzte, eta aurten, 21 ikastaro daude aukeran, gizarte zientzien, osasunaren eta psikopedagogoaren arloetan. Matrikula egin daiteke Bergaran duten egoitzan, seminarioan, edo *www.uned.es/ca-bergara* webgunean.

DEBAGOIENA

► **Udako Euskal Unibertsitateak** udako ikastaroak antolatu ditu. Aurten lehenengo aldiz Eibarren antolatu dituzte. Argibideak, honako webgunean: *ikastaroak.ueu.org*. Matrikulazio epea zabalik dago ekainaren 19ra arte.

IKASTAROAK

BERGARA

► **Ume eta gaztetxoendako** margo ikastaroa antolatu du Beart elkarteak uztailerako. Izenematea zabalik dago. Horretarako, deitu honako telefonoetara: 653 71 53 82 (Mayra), 665 70 31 75, (Oihana) edo 635 71 32 69 (Maite).

ERAKUSKETAK

ARRASATE

► **Juan Mª del Pozo** margolariaren erakusketa dago aste osoan Harresi aretoan. Hilaren 29ra bitartean dago zabalik. Ordutegia, honakoa: astegunetan, 18:00-20:00; zapatu eta jaiegunetan, horrez gain, 12:00-14:00.

► **Luis Laskurain** margolari bergararraren lanen erakusketa dago Arregi markoztatze dendan. Ekain bukaera arte izango da zabalik.

► ***Emakumeak eta Lana*** argazki lehiaketara aurkeztutako lanen erakusketa ipiniko dute Emakume Txokoan hilaren 23an, astelehena. Ekainaren 3ra bitartean izango da zabalik.

BERGARA

► **Simon Arrieta** zeramika tailerraren erakusketa zabalduko dute eguenean, hilak 26, kultura-etxean. Ekainaren 5era arte izango da zabalik. Ordutegia honakoa da: astegunetan, 18:00-21:00; zapatutan, 12:00-14:00.

OÑATI

► **Xabi Rezabal** argazkilari oñatiarrak 14 lanen erakusketa du Arkupe tabernan. *Udazkena Oñatiko basoetan* du izena. Ekainera arte duzue lanak ikusteko eta erosteko aukera.

► ***Adur, adur, ez naiz hire beldur*** izeneko beldurraren aretoa ikusteko aukera dago liburutegian hil bukaerara arte. Ume-literaturan beldurraren gaiak duen lekuaren ingurukoa da eta Lehen Hezkuntzako ikasleei zuzenduta dago. Hilaren 26an, eguena, Rai Bueno ipuin kontalariak *Hiru beldur txiki, hiru ile luze* kontaketa egingo du, 18:00etan.

ANTZERKIA

ARRASATE

► ***Fitola balba, karpuki tui*** ikuskizuna egingo du Antzerkiola Imaginarioak gaur, egubakoitza, Amaia antzokian, 22:30ean. AEDk antolatzen du, Kultur Errota egitasmoaren barne.

MUSIKA

ARRASATE

► **3.60 aretoak** musika emanaldiak antolatu ditu. Electroniche jaia izango da gaur, egubakoitza, 00:00etan. Honako disko jartzaileek jardungo dute: Alain (Go Jam) Gonzalo (Morbid) eta Iñaki Abasolok. 6 euro da. Bihar, zapatua, Dolce Vita, Lagash eta Elvereth taldeek joko dute 22:30ean (3 euro da), eta gero, 03:00etan, Triple X featuring Africa (sarrera, doan).

► **El mentón de Forgaty** taldeak rock emanaldia egingo du gaur, egubakoitza, Zarugalde kaleko Gure Leku tabernan, 23:00etan.

BERGARA

► **Apocalyptica** taldeak kontzertua eskainiko du gaur, egubakoitza, Jam aretoan, 22:00etan. Sarrera da 22 euro, 20 aldez aurretik erosita. Metal musika egiten dute celloekin.

► **Colera (Valentzia), Blinded (Laudio) eta Lindane (Ermua)** taldeek joko dute gaur, egubakoitza, gaztetxean, 22:30ean.

► **Sex Museum** taldeak joko du bihar, zapatua, Jam aretoan, 22:00etan. Los del Tonos eta La Vaca Azul taldeek ere joko dute. Sarrera da 17 euro, 15 aldez aurretik erosiz gero.

ELGETA

► **Rogelio Botanz eta Alfonso Sastrek** musika emanaldia egingo dute etzi, domeka, Espaloian, 20:00etan.

ESKORIATZA

► **Pettik** kontzertua eskainiko du etzi, domeka, gaztetxean, 19:00etan, Axtroki euskara elkarteak antolatuta.

OÑATI

► **Ganbara Txiki eta Txikitxo** abesbatzek ikasturte bukaerako kontzertua egingo dute bihar, zapatua, agustindarren elizan, 20:00etan.

► ***Tam-tametik Tom-tomera*** kontzertu didaktikoa egingo du Pirineos Jazz Orchestra taldeak etzi, domeka, Santa Ana antzokian, 19:30ean, 27. Musikegunak jaialdiaren barne. Musika egin eta antzeztu egiten dute, eta musika beltzaren historiaren berri emango dute, bere estilo guztiak landuta: erritmo afrikarrak, bluesa, swinga, rock'n'rolla…

► **Musika eskolako irakasleek** kontzertu didaktikoa egingo dute hilaren 25ean, eguaztena, Santa Ana aretoan, 14:30-16:30. LHko ikasleendako da.

OSPAKIZUNAK

ARAMAIO

► **Bertso-kantu eguna** ospatuko dute gaur, egubakoitza. Esaera zaharren bertso lehiaketa egingo dute lehenengo; Herriko plazan batuko dira 19:00etan eta gero tabernatara joango dira. 21:00etan, kantu afaria egingo dute Uribarriko Intxaurrondo elkartean.

ARETXABALETA

► **Santa Ritaren omenezko** ospakizunak egiten ari dira moja agustindarrak. Gaur, egubakoitza, Santa Ritaren bederatziurrena egingo dute euren komentuan, 19:00etan; 19:30ean, Donostiako Easo Abesbatzako Kapera Gregorianoak emanaldia egingo du; eta astelehenean, hilak 23, ospatuko dute Santa Ritaren eguna bi mezarekin, 11:00etan eta 19:00etan.

BERGARA

► **Haurren Eguna** ospatuko dute etzi, domeka. 11:30ean, Herriko plazan, alkate txikiei ongietorria egingo diete; 11:45ean, dantzari guztiek kalejira egingo dute.

OÑATI

► **Larraña Institutuaren 25. urteurrena** ospatuko dute bihar, zapatua, Larraña egoitzan. 11:00etan, bideo emanaldia egingo dute; 12:00etan, Eteoko areto nagusian, sarrera eta aurkezpena, estamentuen agurra, tailerraren inaugurazioa eta luntxa.

► ***Iparraldea Oñatin*** kultura-jaialdia antolatu dute Udalak, Foru Aldundiak eta

► AZOKAK

BIGARREN URTEZ, ERDI AROKO AZOKA ASTEBURU OSOAN ARRASATEN

Erdi Aroan girotutako asteburua pasatzeko aukera izango dugu zapatuan eta domekan, Arrasaten bigarren urtez antolatu dute-eta Erdi Aroko Azoka. Bihar eta etzi, denetariko ekintzek alaituko dituzte Arrasateko gune garrantzitsuenak. 11:30ean hasiko dira ekintzak, kalejira batekin. Segidan, musika emanaldiak, malabarista, fakir eta suge-sorgintzailearen emanaldiak, falkoneria, kale-antzerkia eta, 21:00etan, zapatu eta domekan ikuskizun handi bana izango dira. Honako beste eskaintzak ere badaude: umeendako karpa eta Erdi Aroko tailerrak; astoan ibiltzeko aukera; azoka arabiarra; umeendako animazioa; 80 artisautza postu inguru; Erdi Aroko jantzi erakusketa, Monterronen; eta alde zaharrean bisita gidatuak.

Non: Arrasateko plaza eta kale garrantzitsuenetan. **Noiz:** bihar eta etzi, hilak 21 eta 22. **Ordutegia:** 11:30ean hasita.

POP ROCK KONTZERTUA

PETTI

- **Noiz:** Maiatzak 22, igandea.
- **Non:** Eskoriatzako Gaztetxean.
- **Ordua:** Arratsaldeko 7ak.
- Sarrera: doan.
- **Antolatzailea:** Eskoriatzako Axtroki Kultur Elkartea.
- **Laguntzailea:** Topagunea-Kultur Errota.

AXTROki
KULTUR ELKARTEA

Laixan euskara elkarteak. Horren barne, honako ekintzak izango dira datozen egunotan: eguaztenean, hilak 25, *Herrialde urdina* txotxongilo saioa Santa Ana antzokian, 10:45ean; eta eguenean, hilak 26, Iparraldeko film laburren emanaldia kultura-etxean, 19:30ean. Segidan, Paxkal Indo eta Aitor Arregi zinemagileekin berriketaldia izango da. Hurrengo egunetan ekintza gehiago izango dira.

DEIAK

ANTZUOLA

► **Eskalatzera joateko** gaztetxoendako irteera antolatu du Arrola elkarteak hilaren 29an, domeka. Eginora (Araba) joango dira. Izena emateko, jo Arrolaren egoitzara hilaren 24an, martitzena.

ARRASATE

► **Pagoetara irteera** egingo du Emakume Txokoak egubakoitzean, hilak 28. Izena emateko aukera duzue honako telefonora deituta: 943 79 41 39.

► **Txatxilipurdiren udalekuetan** izena emateko epea zabalik dago hilaren 23ra bitartean, astelehena, berau barne. Horretarako, deitu honako zenbakietara: 943 77 17 39 edo 943 79 54 46.

DEBAGOIENA

► **Segi erakundeak** kale agerraldia deitu du biharko, zapatua, Donostian, *Eskubide zibil eta politikoen defentsan, gazteria aurrera!* leloarekin, eta autobusa antolatu dute hara joateko. 16:00etan abiatuko da Arrasatetik, eta Bergaratik ere pasatuko da. Izena emateko, jo Arrasateko Irati edo Bergarako Arrano tabernetara.

ESKORIATZA

► **Alabitara mendi martxa** deitu du Aitzorrotz taldeak etzirako, domeka. Herriko plazatik abiatuko dira 09:00etan.

► **Bertso jaialdia** egingo dute eguaztenean, hilak 25, Arizmendi ikastolako Almen gunean, 17:30ean. Luis Ezeiza eta Almen ikastetxeetako LHko ikasleek egingo dute jaialdia.

OÑATI

► **Bertso bazkaria** egingo dute bihar, zapatua, Araotzen, Sebastian, Beñat eta Jose Lizasorekin.

► ***Haurren beldurrak: zelan aurre egin?*** delako hitzaldia egingo du Eraberri taldeak eguenean, hilak 26, Elkar Hezi ikastetxeko liburutegian (Arantzazu kalea, 18), 19:00etan.

Zinema

ARAMAIO

■ **KULTURA ETXEA**

Hotel Rwanda
Egubakoitza: 22:30.

Océanos de fuego
Domeka: 17:00.

ARRASATE

■ **AMAIA ANTZOKIA**

Habana blues
Zapatua: 19:30, 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

Heffalump
Domeka: 17:00.

Las tortugas también vuelan
Eguena: 20:30.

Astelehena, ikuslearen eguna.

ELGETA

■ **ESPALOIA**

El mito de Bourne
Eguaztena: 21:30.

OÑATI

■ **KULTURA ETXEA**

Habana blues
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

Astelehena, ikuslearen eguna.

EIBAR

■ **UNZAGA**

Star Wars, episodio 3
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:15.

Eguaztena, ikuslearen eguna.

■ **RIALTO**

La intérprete
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena eta martitzena: 19:30, 22:15.

Martitzena, ikuslearen eguna.

GASTEIZ

■ **GURIDI**

Sahara
17:30, 22:30.

Star wars, episodio 3
17:00, 19:45, 22:30.

El reino de los cielos
17:00, 19:45, 22:30.

Más allá de la alambrada
Egubakoitza: 17:30.
Domeka: 22:30.

El gran golpe
17:30, 20:00, 22:30.

Una hija diferente
17:30, 20:00, 22:30.

Mr. Batignole
20:00.

Tapas
17:30, 20:00, 22:30.

■ **MIKELDI ZINEMAK**

Star wars, episodio 3
17:10, 19:55, 22:30.

El reino de los cielos
17:05, 19:50, 22:45.

Frágil
17:15, 20:00, 22:30.

In my country
Egubakoitza: 17:30, 20:15, 22:45.
Zapatua eta domeka: 20:15, 22:45.

Los porfiados
17:30, 20:15, 22:45.

Hierro 3
17:15, 20:00, 22:30.

Million dollar baby
17:15, 20:00, 22:30.

La casa de las dagas voladoras
17:20, 19:50, 22:35.

Hechizada
17:30, 20:15, 22:45.

XXX 2 - Estado de emergencia
17:30, 20:15, 22:45.

Un canguro superduro
Zapatua eta domeka: 17:30.

Martitzena, ikuslearen eguna.

■ **FLORIDA-GURIDI**

Hormigas en la boca
20:00.

Omagh
17:30, 20:00, 22:30.

Millones
17:30, 20:00, 22:30.

Arsene Lupin
17:30, 20:00, 22:30.

La última primavera
17:30, 20:00, 22:30.

Fernando y Carolina
17:30, 20:00, 22:30.

Reinas
17:30, 22:30.

Memoria del saqueo
20:00.

Heroína
17:30, 22:30.

■ **ÁBACO-LAKUA ZINEMAK**

El reino de los cielos
16:00, 19:00, 22:00, 01:00.

Justa venganza
16:15.

Robots
17:15.

El penalti más largo del mundo
17:15, 19:30.

XXX 2 - Estado de emergencia
16:00, 18:10, 20:20, 22:30, 01:00.

In good company
22:45, 01:00.

Star wars, episodio 3
16:00, 19:00, 22:00, 01:00.

Un canguro superduro
17:15.

Be cool
19:15, 21:45, 01:00.

La maldición
22:45, 01:00.

Los chicos del coro
16:00, 18:15, 20:20.

Habana blues
19:15, 22:45, 01:00.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

■ **YELMO CINEPLEX-GORBEIA**

Tapas
12:15, 16:20, 18:20, 20:20, 22:20, 00:20.

Justa venganza
12:15, 16:45, 18:45, 20:45, 22:45, 00:45.

La intérprete
12:15, 16:50, 19:20, 22:00, 00:40.

El reino de los cielos
12:15, 16:00, 18:45, 21:45, 00:35.

Million dollar baby
21:50, 00:25.

Be cool
19:35, 22:05, 00:35.

El gran golpe
12:15, 16:30, 18:30, 20:30, 22:30, 00:30.

Heffalump
12:15, 16:40, 18:10.

XXX 2 - Estado de emergencia
12:15, 16:40, 18:40, 20:40, 22:40, 00:40.

Bob esponja
12:15, 16:05, 17:50.

Un canguro superduro
12:15, 15:50, 17:50, 19:50.

In good company
12:15, 15:45, 18:00, 20:15, 22:30, 00:45.

Saw
12:15, 16:30, 18:35, 20:40, 22:45, 00:50.

Star wars, episodio 3
Egubakoitza eta zapatua: 15:30, 17:30, 18:30, 20:30, 21:30, 23:30, 00:30.
Domeka: 12:15, 15:30, 17:30, 18:30, 20:30, 21:30.

Robots
12:15, 16:00, 18:00.

The ring 2
20:00, 22:10, 00:20.

Reinas
19:45, 22:00, 00:15.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

■ **ÁBACO BOULEVARD**

La intérprete
12:15, 17:00, 19:45, 22:20, 01:00.

Sahara
12:00, 17:10, 19:40, 22:10, 01:00.

El gran golpe
12:10, 17:15, 19:30.

Robots
12:10, 16:15, 18:10.

El reino de los cielos
12:00, 16:05, 19:00, 22:00, 01:00.

Tapas
12:00, 16:00, 18:10, 20:20, 22:40, 01:00.

Un canguro superduro
12:15, 16:10, 18:10.

Million dollar baby
22:20, 01:00.

Star wars, episodio 3
12:00, 16:00, 16:30, 19:00, 19:20, 22:00, 22:15, 01:00.

XXX 2 - Estado de emergencia
12:15, 16:00, 18:10, 20:20.

Heroína
22:35, 01:00.

Soñando, soñando, triunfe patinando
16:00 (egubakoitza), 18:10, 20:15.

The ring 2
22:00, 01:00.

Heffalump
12:20, 16:30.

Cosas que hacer antes de los 30
12:20, 17:00.

Reinas
20:00, 22:15, 01:00.

La maldición
20:20, 22:35, 01:00.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

Las tortugas también vuelan: ●●●● / ***Million dollar baby:*** ●●●● / ***La intérprete:*** ●●● / ***La casa de las dagas voladoras:*** ●●● / ***Reinas:*** ●● /

ESKASA:● BALEKOA:●● ONA:●●● OSO ONA:●●●● BIKAINA:●●●●●

KRITIKA

NADIE SABE

PUNTUAZIOA: ●●●●●

ZUZENDARIA: Hirokazu Koreeda.
AKTOREAK: Yagira Yûya, Kitaura Ayu, Kumura Hiei.

Sarritan komentatu dugu oso kopia gutxirekin estreinatutako filmen kasua. Bada, *Nadie sabe* filma, talde horretan sar dezakegu: japoniarra, jatorrizko hizkuntzan azpitituluekin eta bi ordu eta hogei minutuko iraupenarekin, erraz uler daiteke ez dela oso lan komertziala izango, baina argi dago benetan lan zoragarria dela.

Nadie Sabe-k lau haurren istorioa kontatzen digu. Laurek ama bera izan arren, aita desberdinak dituzte. Haurrak ezkutuan bizi dira, bakarrik hamabi urteko seme heldua irten daiteke kalera (etxerako erosketak egitera irteten da); eta amak, askotan, etxetik kanpo denboraldi luzeak egiten dituenez, eurak arduratu behar dira etxeko lan guztiak egiteaz. Egoera kaotikoa eta oso berezia bada ere, txarrera egingo du ama agertzen ez denean eta bizitzeko baliabideak bukatzen zaizkienean.

Nadie Sabe oso proposamen pertsonala da, eta beharrezkoa da ikuslearen konplizitatea eta interesa film honen benetako balioa dastatzeko. Berezia da kontatzen zaigun istorioa, baita zuzendariak erabiltzen duen errritmoa eta istoriora hurbiltzeko modua ere: apaindura gutxiko irudiekin, (hori bai,

etxeko eta kanpoko irudien tratamendua oso desberdina da) eta musikaren erabilera murriztuarekin, zuzendariak, aldi berean, latza, poetikoa, mingarria, eta benetan hunkigarria den filma burutzen du. Oso ondo erabiltzen ditu haurren keinuak, begiradak; eta xehetasun txikiak benetan adierazgarriak dira. Askotan, ikuslea adi ez badago, pentsa dezake filma ez doala aurrera edo errepikakorra dela, baina ez da horrela. Eszena batetik bestera istorioaren eta pertsonaien egoera aldatuz doa, ez dago tonu aldaketa nabarmenik, ezta efektu-kolpe handirik ere, baina eszena bakoitzak istorio nagusian eta ikuslearen bihotzean bere arrastoa uzten du. Zuzendariak, era lasaian, garrasirik gabe, ondo daki agertzen bizitzaren alderdi gogorrenak eta ikaragarrienak, baita haurren pentsaerak azaltzen ere: alde batetik, ikusten dugu jasaten ari diren egoera gehiegizkoa dela, eta bestetik, haurrek duten inozentzia jasanezinak diren egoerei aurre egiteko ahalmena ematen dietela.

ANTONIO ZABALA

KOROSTI INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
Santi Kutz 8 • LEGAZPI
Tel.: 943 73 05 25

ETXEBIZITZAK SALGAI
Bergara:
• Duplexa erdialdean 180 m².
• Zubieta 70 m². Ondo.
• Zubiaurre 45m². Berrituta.
• Erdialdea 110 m². Oso ondo.
• Erdialdea 50 m². Berritzeko.
• San Pedro 110 m². Berritzeko.
• Bolu 90 m². Garajea.
• Matxiategi 75 m². Eguzkitsua.
Antzuola:
• Hamaika etxebizitza berri.
• 55 m². Ondo.
• 88 m². Garajea. Oso ondo.
BASERRIAK SALGAI
• Elosun, Angiozarren, Soraluzen eta San Juanen.
LOKALAK ETA GARAJEAK
Salgai eta errentan.

DEBA GARAIA INMOBILIARIA
Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37
Zarugalde 1 Arrasate
T: 943 77 13 02 F. 943 73 12 40
ETXEBIZITZAK SALGAI
BERGARA:
•Erdialdea 72 m². Oso ondo. Ganbara
•Erdialdea 90 m². Berrizteko
•Erdialdea 57 m². Oso ondo.
•Duplexa, erdialdean 116 m².
•Masterreka 69m². Oso ondo dago.
•Martoko 60 m². Berritzeko.
•Elorregi 64 m². Berritzeko.
•Zubiaurre 45 m². Erdi berritua.
•Duplexa, erdialdean 153 m².
•Aranerreka 82 m². Garajea.
•San Pedro 110 m². Berritzeko.
•Txaleta 300 m². Berria.
ANTZUOLA:
•Bustinzuri 88 m². Berria.
•11 etxebizitza berri.
SORALUZE:
•Ezozi 83 m². Ondo dago.
BASERRIAK
•Elosua 246 m². Egoera onean.

Iragarki sailkatuak

1. ETXEBIZITZAK
101. SALDU
102. EROSI
103. ERRENTAN EMAN
104. ERRENTAN HARTU
105. ETXEAK OSATU
106. BESTELAKOAK

2. GARAJEAK
201. SALDU
202. EROSI
203. ERRENTAN EMAN
204. ERRENTAN HARTU
205. BESTELAKOAK

3. LOKALAK
301. SALDU
302. EROSI
303. ERRENTAN EMAN
304. ERRENTAN HARTU
305. BESTELAKOAK

4. LANA
401. ESKAINTZAK
402. ESKAERAK
403. BESTELAKOAK

5. IRAKASKUNTZA
501. JASO
502. EMAN
503. BESTELAKOAK

6. MOTORRA
601. SALDU
602. EROSI
603. ALOKATU
603. KONPONDU
604. BESTELAKOAK

7. ANIMALIAK
701. SALDU
702. EROSI
703. EMAN
704. BESTELAKOAK

8. DENETARIK
801. SALDU
802. EROSI
803. EMAN
804. HARTU
805. TRUKATU
806. GALDU
807. AURKITU
808. BESTELAKOAK

9. HARREMANAK
901. AGURRAK
902. HARREMANAK
903. DEIAK
904. BESTELAKOAK

10. RELAX

Eguazten eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

943 76 92 71
sailkatuak@goiena.com

PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 16 € (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO.
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Garbi S.L.
PIPIEN, TERMITEN, ETA ABARREN AURKAKO TRATAMENDU ANTIXILOFAGOAK EGURREAN, ALTZARIETAN, ETA ABARRETAN.
943 33 18 37 (HERNANI)
649 84 67 09 (BERGARA)

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Angiozar. Baserria salgai. 1.086 metro koadrokoa eta 33.000 metro koadroko lursailarekin. Deitu 19:00etatik aurrera. 943 76 55 80.

Antzuola. 2004. urtean egindako etxea salgai. 90m², 3 logela, terraza eta garajearekin. Aukera ona, presazkoa da saltzea. 675 71 24 54 edo 944 37 80 27.

Antzuola. Bi logela, egongela, trastelekua. Gasa eta berogailua kanalizatuta ditu. Sartzeko prest. 169.000 euro. 627 21 87 49.

Arrasate. 78 m², hiru logela, bi bainugela, balkoia eta terraza, garajea eta ganbara. Eguzkitsua. Malbinetan. 685 72 86 41.

Arrasate. Etxebizitza salgai Uribe auzoan. 110 m². Guztia kanpoaldera. Lau logela. Ganbara eta garajea. 943 79 01 91.

Arrasate. Hiru logela, sukaldea, egongela eta bainugela. Bi terraza ditu. Erguin auzoan dago. 615 75 04 72.

Arrasate. Maala kaleko etxe txikietako bat. 943 79 73 90.

Bergara. Berritua. 70 metro koadro. Bi logela. Oso eguzkitsua. 609 71 41 02.

Bergara. etxebizitza berritua salgai Koldo Elizalden. 82m². 3 logela, trastelekua eta igogailua. 699 06 31 08.

Bergara. Ibargarai kalean etxebizitza salgai. 109 m². Kanpora begira. 667 73 11 63.

Bergara. Ibarra kalean. 58 metro koadro. Bi logela, bainugela, egongela, sukaldea eta sotoa. Leiho guztiek kanpora ematen dute. Guztiz berritua dago. 943 76 11 58.

Bergara. Osintxun. Garajea, ganbara, sukaldea jantzita, hiru logela, egongela eta bainugela. 675 70 53 66.

Elgeta. Bi logela, bainugela, egongela eta ganbara ditu. Igogailua ere badu. 946 81 71 97 edo 645 71 76 25.

Elgeta. Etxebizitza salgai. Hiru logela, bi bainugela, egongela eta ganbara. 687 04 63 82.

Elgeta. Etxebizitza salgai. Hiru logela, ganbara, igogailua. 645 71 76 25.

Eskoriatza. Erdian. Berria. 70 metro koadro. Bi logela, bainugela, egongela eta sukaldea. Erdi jantzita. Igogailua eta garaje itxia ere badu. 627 42 63 12.

Merida. 60 m²-ko etxebizitza salgai. Berritua eta jantzia. 51.000 euro (8.500.000 pezeta). 924 31 84 13.

Oñati. 95 m². Hiru logela, egongela eta ganbara. Berritua dago. 943 78 07 84 edo 635 75 62 02.

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Hiru logela eta bi bainugela. 635 73 27 74.

Bareges. Etxebizitza emango nuke errentan Frantziako Pirinioetan, Bareges herrian. 679 76 11 57.

Benidorm eta Peñiscolan etxebizitzak ematen dira errentan. 945 29 33 80.

Benidorm. Apartamentua alokairuan. Levanteko hondartzan. Igerilekua eta garaje plazarekin. 652 75 91 72 edo 945 21 34 70.

Bergara. Etxebizitza errentan ematen da. Kanpoalde eguzkitsua. Ggarajea aukeran. Burdinaten. 943 76 54 98.

Calpe. Apartamentua errentan. Hondartzatik gertu. 655 74 57 97.

Cambrils. Apartamentua errentan ematen dut, itsasotik gertu-gertu. 610 79 47 29.

Capreton (Landak). Etxea errentane emango nuke uztailean. Igerilekuarekin. 627 76 08 26.

Conil (Cadiz). Batelen hondartza ondoan apartamentua errentan. 680 44 26 68.

Costa Sancti Petri-Chiclana (Cadiz). Apartamentua ematen dut errentan. Deitu gauez. 616 14 65 54 edo 678 78 39 10.

Donostia. Etxebizitza errentan Antiguo auzoan, Ondarreta hondartzatik oso gertu. 943 37 72 92.

Ezkarai. Apartamentua alokagai. 685 72 16 98.

La Pineda (Salou). Etxebizitza alokagai abuzturen 1etik 15era eta Irailean. 943 79 45 74 edo 606 76 11 37.

Luz Ardiden. Apartamentua errentan ematen da. Garajearekin. 943 76 72 20.

Marina d'Or (Oropesa del Mar). Apartamentua errentan. Hondartzatik 20m-ra. 4-6 lagunendako. 652 73 94 88.

Oñati. Hiru logela, egongela, sukaldea eta bi balkoi. Deitu 21:00etatik aurrera, mesedez. 943 78 10 01.

Salou. Apartamentua ematen dut errentan. 629 98 98 99 edo 943 81 42 38.

Vera (Almeria). Apartamentua ematen da errentan naturista gune baten. Hondartza naturista. 657 73 94 25.

Zarautz. Etxebizitza errentan. Asteburuetarako, udarako eta zubietarako. Hondartzatik gertu. 685 71 84 54.

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Etxebizitza konpartitu bateko logela bat hartuko nuke errentan. Deitu gauez. Maider. 650 59 93 91.

Bergara. Etxebizitza errentan hartuko nuke erdigunean. 943 76 71 67.

Elgeta. Pisu edo atiko bat hartuko nuke errentan. Txikia bada, primeran. 665 72 19 89.

Etxebizitza txiki bat alokatu gura dugun bi neska langile gara. 615 72 33 34 edo 606 92 59 33.

105. ETXEAK OSATU

Arrasate. 25 urtetik gorako pertsona bat behar da beste batekin etxebizitza osatzeko. 626 71 96 80.

Arrasate. Zigarrolan bi pertsona behar dira etxea osatzeko. 635 74 48 71 edo 616 29 08 32.

2/ GARAJEAK

204. ERRENTAN HARTU

Bergara. Garajea hartuko nuke errentan Aranerreka kalean. 606 27 99 62.

3/ LOKALAK

301. SALDU

Antzuola. Lokala saldu edo alokatzen da. 103 m². Gremioentzako aproposa. 943 78 71 53.

Arrasate. 70 m²-ko lokala salgai. 943 79 76 95.

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

Arrasate. Adineko pertsonak aste bukaeretan zaintzeko, pertsona behar da. Orduka. 943 037831(gauez) edo. 645 00 84 79.

Bergara. Gazte elbarritua zaintzeko emakume bat behar da, orduka. 943 76 49 72.

Bergara. Lagun bat behar da Basalgo auzoko elkartean garbiketa lanak egiteko. 615 79 98 32.

Bergara. Umeak zaintzeko neska bat behar da. 943 76 27 96.

Debagoiena. Udan lan egiteko aisialdirako begiraleak behar dira. Ingelesa eta euskara jakitea beharrezkoa da. 943 76 26 29.

402. ESKAERAK

Bergara. Adineko pertsonak zaintzen lan egingo nuke, arratsaldetan. 659 98 20 17.

Bergara. Emakumea lanerako gertu. 12:30etik aurrera. Etxeko lanetan edo adineko pertsonak zaintzen lan egingo nuke. 685 70 46 97.

Bergara. Emakumea lanerako gertu. Egun osoz egingo nuke lan etxeak garbitzen edo adineko pertsonak zaintzen. 667 93 85 54.

Bergara. Umeak edo adineko pertsonak zainduko nituzke, arratsaldez. 610 34 97 88.

Debagoiena. Esperientziadun tabernaria gertu debagoienean lan egiteko. 943 79 60 34 edo 618 83 22 75.

Debagoiena. Jende nagusia zaintzeko gertu nago, baita ospitalean dagoen edonor zaintzeko ere. 943 79 60 34 edo 618 83 22 75.

Ekonomian lizentziatua gertu administrazioan, kontabilitatean edo ekonomia alorreko lanetan lanean hasteko. Marisa. 657 70 03 22.

Neska eskaintzen da arratsaldeetan orduka umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko. Bego. 943 79 45 16.

ANTZUOLA
JARDUNEAN DAGOEN ARGAZKI DENDA ETA BITXITEGIA, ALOKAGAI EDO SALGAI.
943 78 70 66
635 75 72 71

BERGARA
BATZOKIAN SUKALDARIA BEHAR DA.
943 76 22 24

if in faradis
Arrasateko In faradis lurrindegian behar da
SALTZAILEA
Kosmetikan eta edertasunean interesatuta dagoen pertsona bat behar dugu arratsaldez lan egiteko.
Lehentasuna ematen diogu bezeroari , taldean lan egiteari eta gure saltzaileen prestakuntzari.
Interesatuak etorri
Olarte kaleko 10-12. zenbakian dagoen dendara zure curriculumarekin, argazki batekin eta kontakturako telefono batekin,.
Edo deitu 620 267 754 telefonora eta galdetu Virginiarengatik.
www.infaradis.com

ARETXABALETA
ZERBITZARIA BEHAR DA ASTEBURUETAN LAN EGITEKO.
652 70 82 46

ARRASATE
ASEGURU ETXEAK KOMERTZIALAK BEHAR DITU ARRASATEKO EGOITZARAKO. 25 URTETIK GORAKOAK. FORMAKUNTZA ENPRESAREN KONTU.
635 73 31 26

5/ IRAKASKUNTZA

502. EMAN

Aretxabaleta. Ingeleseko eskola partikularrak ematen dira. 943 79 03 83.

Arrasate. Neska euskalduna prest ingeleseko klaseak emateko. Uda partean ere bai. 686 82 62 92.

Bergara. Eskolak emango nituzke. Oorain eta udan. Edozein ikasgai. 943 76 27 81.

6/ MOTORRA

601. SALDU

Astra sport 200 DTI. 2002. urtekoa. Gehigarrietan 9.000 euro. 661 70 03 90.

Audi 100 2.3E autoa salgai. Oso ondo dago. Osagarriak. 629 42 36 54.

BMW F-6-50 trail motorra salgai. BKS matrikuladuna, 1998koa. 17.000 km. Bittor. 656 78 92 19.

Citroen Saxo autoa salgai. Lau urte ditu. 943 77 08 08.

Citroën ZX 1.9 Diesel autoa. 1992koa. 2.000 euro. 650 00 86 58.

Fiat Bravo 1.6 16v 103zp. 108.000 km. Osagarriak. 3.000 euro. 647 98 92 05.

Ford Transit furgoneta. Prestatua dago. 4.500 euro. 630 62 11 84 edo 945 44 54 24.

Ford Escort autoa salgai. BI-BS matrikuladuna. Egoera onean. 665 75 18 97.

Ford Mondeo autoa. 2.5, V6. Zortzi urte. 3.500 euro. 615 78 17 35.

Gas-Gas Enduro motorra salgai. 250 cm³. 1998. urtekoa. Matrikulatua. 2.000 euro. 630 77 46 97.

ANGIOZAR
ORTZI ERRETEGIA ALOKATZEN DA.
943 78 22 80
665 72 24 46

ARETXABALETA
EMAKUMEA BEHAR DA ASTEBURUETAN JATETXEKO SUKALDEAN LAN EGITEKO.
679 45 57 75

DEBAGOIENA
SUKALDARIA BEHAR DA AURREZ PRESTATUTAKO JAKIEN SALTOKI BATEN GOIZEZ LAN EGITEKO.
675 70 82 35

Gas-Gas TXT 350 trialeko motorra salgai. 1995ekoa. 676 50 63 49.

Honda Transalp 600 v motorra salgai. Gauez deitu. 946 23 19 26.

Intruder Volusia 800 motorra. Bi urte ditu. Osagarri asko ditu. Oso egoera onean dago. 635 75 41 11.

Renault Clio. SS-AP matrikuladuna. 1.000 euro. 656 72 04 31.

Seat Toledo TDI, 2001. urtekoa. 70 mila Km ditu eta grisa da. Deitu arratsaldez. 652 42 86 46.

Suzuki Samurai mendiko autoa salgai. Luzea. 1.300 motorra. Zuntzezko sabaia. 1989koa. 3.000 euro. Deitu 20:00etatik 22:00etara. 639 13 11 49.

Volswagen California salgai. 2.400 zentimetro kubiko, bost zilindro eta berogailua. 1992koa. 656 76 87 93.

Yamaha Aerox motorra. 450 euro. Egoera onean. 667 56 13 24.

Yamaha Virago 535 motorra. 6 urte, 15.000 km, 3.900 euro. 670 43 17 23.

7/ ANIMALIAK

701. SALDU

Cocker arrazako txakurkumeak salgai. Gauez deitu. 943 76 52 26.

Setter ingeles arrazako txakurkumeak salgai. Prezio ona. 943 76 37 70.

Txakurkumeak. Spaniel arrazako txakurkume emea salgai. 943 78 03 08 edo 656 74 80 47.

703. EMAN

Setter ingeles bat oparitzen da, 6 urtekoa. Telefonoa: 945 44 54 37.

8/ DENETARIK

801. SALDU

Argazki kamera. Olympus III 115Kit: autofokusa, AE3way sistema. Eta Sony Ericsson Z600 Vodafone Live telefonoa salgai.

Berri-berriak, urtebete besterik ez daukate. Deitu telefono hauetara: 627 62 53 30 edo 943 79 40 44.

Autokarabana salgai. Lau pertsonendakoa. Deitu arratsaldeko 19:00etatik aurrera. Telefonoa: 943 79 33 91 edo 609 40 44 97.

Bizikleta estatikoa salgai. Arraun funtzioarekin. Berria. 60 euro. Deitu telefono honetara: 6670 08 12 16.

Emaztegai soinekoa salgai daukat. Marfil kolorekoa. 42-44 neurrikoa. 480 euro. 943 08 00 81 edo 615 72 64 30.

Enkoadernatzeko makina salgai. 657 73 21 49.

Errepideko bizikleta salgai. Olmo markakoa. Campagnolo Veloce osagaiekin. Oso-oso prezio onean. 665 70 75 35.

Fotokopia makina salgai. Lamier 5227. Urtebetekoa. 1.500 kopia egin ditu. 630 32 38 00.

Lau hagun salgai. 17'. BMW M3 modelorakoak. Telefonoa: 630 32 38 00.

Logela bateko altzariak: armairua eta 90 cm-ko bi ohe prezio onean salgai. 676 61 70 55 edo 659 76 06 72.

Prijon Canyon piragua. Plastikozkoa, 3,3 m. Guztiz hornituta: neoprenozko zulo estalkia, arrauna, salbamenduko txalekoa, 12 litroko poltsa hermetikoa eta eskarpinak. Deitu telefono honetara: 6656 77 82 81.

803. EMAN

Bideta. Roca Dama modeloa, taparekin. Bila joan beharko da. 943 78 62 25.

805. TRUKATU

Auto-gehigarriak. Peugeot Expert autoarendako bi aurreko eserleku eserleku plaza baten truke emango nituzke. 645 72 25 24.

806. GALDU

Oñati. Apirilaren 23an, larunbata, Herriko tabernatik plazara bidean betaurreko beltzak galdu nituen. Telefonoa: 649 35 35 33.

9/ HARREMANAK

902. HARREMANAK

Mutila beste mutil baten bila. *muxutruk9@yahoo.es.*

Oñatiko Udala

IKASTAROAK

TEKNOLOGIA eta INFORMAZIO-GIZARTE
Batzordeak ikastaro hauek antolatuko ditu:

1. INFORMATIKA TEKNIKOA (30 ordu).
- Tailer teknikoa eta ordenagailuen mantenimentua: hasierako urratsak.
- Ordenagailu barneko konponenteen aspektu teknikoen oinarrizko ezagutza. Sarritan sortzen diren arazoak eta hauen konponbideak.

2. INFORMATIKA ARTISTIKOA (30 ordu).
- Tailer artistikoa teknologia berrien eskutik: hasierako urratsak.
- Argazki diseinua, aurkezpenak eta antzerakoak landuko dira, Digital Image Pro 10, Power Point XP eta Internet erabiliz.

3. MEKANOGRAFIA (20 ordu).

Izenematea:
Maiatzaren 25a arte
Bidebarrieta, 12 – 943-037700 (Jesus M. Ugarte)

AIPAGARRI

Roberto Izagirre

BERGARA

Kilometroak 05eko literatur lehiaketak badu irabazlea. Hamar lagunek hartu dute parte eta epaimahaiak Roberto Izagirre saritu du. Saritutako ideiatik abiatuz *Dragoiaren orroa* nobela idatzi eta Donostian aurkeztuko dute ekainaren 17an. Sari banaketa egun berean egingo da Aretxabaletan.

Aitor Aldanondo

BERGARA

Brigada Criminal Lazkaoko taldeak iraupen luzeko lehen lana aurkeztu du asteon: *Gure mandamentuak*. Martxo eta apiril bitartean grabatu ostean, 11 kantu berri eta bertsio bat jasotzen dituen diskoa kaleratu dute. Talde honetan Aitor Aldanondo bergararrak gitarra jotzen du.

Iñazio Irizar

OÑATI

Mondragon Unibertsitean gradu ondoko ikasketen zuzendari eta Enpresaritzan doktorea den oñatiar honek *Enpresa: Cooperativa y Liderazgo* liburua kaleratu du. Liburuak jasotzen du lidergoaren gaia MCCn. Irizarrek, honetaz gain, beste hainbat artikulu eta dozena bat liburu idatzi ditu.

HILDAKOAK

Tomas Lamikiz Ispizua. Arrasaten, maiatzaren 4an. 80 urte.
Igor Eizagirre Bengoa. Arrasaten, maiatzaren 4an. 34 urte.
Benita Garrido Cristobo. Arrasaten, maiatzaren 4an. 83 urte.
Lucia Sampedro Urrutia. Arrasaten, maiatzaren 9an. 83 urte.
Felix Bikuña Markuleta. Oñatin, maiatzaren 6an. 89 urte.
Anastasio Arantzeta Arregi. Elgetan, maiatzaren 7an. 91 urte..
Jose Cruz Murua Zabaleta. Oñatin, maiatzaren 7an. 72 urte.
Miguel Biain Kortabarria. Oñatin, maiatzaren 7an. 50 urte.
Juan Aberasturi Lazkanoiturburu. Oñatin, 8an. 88 urte.
Angelita Ugarte Sagastizabal. Oñatin, maiatzaren 9an. 76 urte.
Maria Teresa Gomez Martinez Elgetan, 10ean. 65 urte..
Juliana Guridi Urkia. Oñatin, maiatzaren 10ean. 75 urte.
Begoña Mujika Agirrezeziaga. Bergaran, 10ean. 87 urte.
Jorge Enrique Fdez. Muruamendiaraz. Bergaran, 10ean. 40 urte.
Julian Alustiza Jauregi Oñatin, maiatzaren 11n. 91 urte.
Dolores Mugertza Mekolalde. Oñatin, maiatzaren 14an. 91 urte.
Miren Karmele V. de Mendizabal Llona. Arrasaten, 14an. 78 urte.
Maria Bellanco Pascual. Arrasaten, maiatzaren 14an. 77 urte.
Lucia Zabalo Urtekabo. Arrasaten, maiatzaren 15ean. 84 urte.
Eugenio Arizaga Jauregi. Bergaran, maiatzaren 15ean. 85 urte.
Julian Zabala Errasti. Aramaion, maiatzaren 15ean. 83 urte.
Lucas Igartua Igartua. Oñatin, maiatzaren 18an. 77 urte.

URTEURRENA

Maria
Martin Mateos

Lehen urteurreneko meza domekan, maiatzaren 22an, 12:30ean, Bergarako San Pedro elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.



Lurdes Arenaza eta **Jose Ramon Peñagarikano** antzuolarrak orain dela 25 urteko maiatzaren 10ean ezkondu ziren Loiolan, eta bazkaria Kiruri jatetxean egin zuten. "Lagunok zoriondu nahi zaituztegu, maitasun eder hori ez dezazuen galdu".

ESKER ONA

Jose
Aiestaran Etxaniz
Jose Kaminero

Donostian hil zen 2005eko maiatzaren 15ean, 78 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2005eko maiatzaren 20an.

ESKER ONA

Patri
Orobengoa Beitia

Arrasaten hil zen 2005eko apirilaren 26an, 72 urte zituela.

Patri Orobengoa zenaren familiakoek haren heriotzaren ondoren doluminak agertu zizkigutenei, nahiz hileta elizkizunetan parte hartu zuten guzti-guztiei, gure esker ona agertu nahi dizuegu.

Bestalde, Patriren lagunak izan zirenei edo berarekin batera Ulgor-en ibilitako lankideei zera adierazi nahi genieke: Patrik beti bere gogoan izan zituela.

Arrasaten, 2005eko maiatzaren 20an.

www.goiena.net-eko
BLOG KOMERTZIALAK
Zure negozioa Interneten egoteko modu errazena eta merkeena

Prezioen eta ikastaroen gaineko informazioa:
www.goiena.net/blogak
Posta-e: azabarte@goiena.com
Tel.: 943 76 92 70

Goiena.net
Debagoieneko Interneteko ataria

IRAGARPENA

ZAPATUA, 21

Egunaren lehen partean zerua hodeiguneekin egongo da, tarteka hodeitsu. Arratsaldean hodeiak ugarituz joango dira eta zaparrada arinak botako ditu. Haizea aldakor ibiliko da. Tenperatura minimoak ez du aldaketarik izango eta maximoak jaitsi egingo dira.

DOMEKA, 22

Zerua hodeitsu agertuko da eta zaparrada arinak botako ditu. Ekaitzak ere izan daitezke. Mendebaldeko haizea ibiliko da goizean. Arratsalderako, baina, ipar-mendebaldekoa nagusituko da. Tenperatura minimoek berdin jarraituko dute eta maximoak behera egingo du.

PRESIO ATMOSFERIKOA

Atmosferako presio-eremuak

Lurrazaleko metro koadro baten gainean dagoen aire zutabe batek duen pisuari deitzen zaio presio atmosferikoa. Fenomeno hori neurtzeko barometroa erabiltzen dugu.

Maila jakin batean, presio atmosferikoaren balio numerikoa maila horren gainean dagoen aire-zutabearen pisua da. Itsas mailan 950 eta 1.050 milibare artekoa izaten da, eta behe-presioko eremuak eta goi-presioko eremuak bereizten dira. Diferentzia horiek ikaragarrizko garrantzia dute meteorologian, aire-masen mugimendua eta, beraz, haizeena baldintzatzen baitituzte. Aire hotzak beroak baino gehiago pisatzen du, eta horixe da, maila berean presio atmosferiko desberdinak eragiten dituen faktoreetako bat. Gainera, antizikloi eta depresioek aire-korronte bertikalak eragiten dituzte, eta horiek ere ederki aldarazten dute presio atmosferikoaren balioa; hori oso kontuan hartzen da eguraldiaren bilakaeraren iragarpena egiterakoan.

Atmosferako presioaren lehen neurketa 1643an egin zuen Torricellik.

Honako erakunde hauek emandako informazioa:

euskalmet
euskal meteorologi agentzia

aurrera doan herria
un país en marcha
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
GARRAIO ETA HERRI LAN SAILA
DEPARTAMENTO DE TRANSPORTES Y OBRAS PUBLICAS

www.euskalmet.net

HITZGEZIDUNAK

Luma



		Begibistan / *Deitura		Letra izena / Erne		*Izena
		Paradisu biblikoa / Herri nafarra				
Aberrik ez duena / Aurpegi, begitarte		Jardun / Alderatu			500 / Inoiz	
				Nobelioa / Fosforoa		
Pairamen / Ahul, makal						
				Zu / Aholku hartu		
Norat atzizkia / Aldiz, ordea			Jainko grekoa / Biloa			Keinada
Garen hauek / Bizkaiko herria		Altu / Zerezko atzizkia				
		Zegoen / Einstenioa			Iodoa / Interjekzioa	
Beka duena / Gorputz-adar						
			Ufakoa, putza			

GD

GIARTZU DERMOESTETIKA ZENTROA
Espainiako Azaleko Estetika Konpontzailearen Taldeko kide
Azalaren zahartzearen kontrol zientifikoaren unitatea.
Boni Laskurain 3 BERGARA
943 76 35 71

ESTETIKA PROFESIONALEKO KONTSULTA

Eguzki filtro fisikoak eta kimikoak

Euren helburua azalean eta gizakiengan erradiazioa efektu ezkorrak saihestea da.

Filtro on bat eguzkiaren berehalako efektua (UVA izpiek sortutako erredura, baita UVA izpien efektuak eragindako zahartzea) prebenitu eta saihesten duena da.

Filtro fisikoak dira erradiazioari pasatzen uzten ez dioten eta eguzki-erradiazioak azalera iristea galarazten duten sustantziak, eta konposaketa organikoak dira; erradiazio gehien geldiarazten duten filtroak dira, eta horregatik, euren FPSa (babes-faktorea) altua da; euren konposaketa da Titanio Dioxidozkoa, eta geruza zurixka bat uzten dute (orain titanio dioxidozko produktu berri bat dugu, molekula tamainakoa eta nanometro gutxirekin; hortaz, ez dute geruza zurixka hori uzten eta babesa ezin hobea da).

Filtro kimikoak. Lokarri bikoitz eta sinpleak txandakatzen dituzten molekuladun sustantziak dira, eta ezaugarri horri esker xurgatzen dute eguzki-erreakzioaren energia. Mota honetako filtro batzuek azal sentiberetan alergia eragin dezakete (bestalde, azal horiek dute premia handiena). Gaur egun, saliziatozko produktuak ditugu eta ondo xurgatzen dute, babestu egiten dute eta ez dute narritatzen.

Babesteko krema on batek poliki-poliki eta erre gabe brontzeztatzen lagunduko digu, gure azalarentzako egoki diren FPSekin.

Marisabel Hurtado
Dermatizista

UMOREGIROAN

Kike Amonarriz

POLITIKARI USTELAK
Mexikoko egunkari batek titular honekin zabaldu omen zuen lehen orria duela hilabete batzuk: "Gure politikari erdiak ustelduta daude".

Mexikoko parlamentua eta alderdi politiko guztietako egoitzak asaldatu egin omen ziren albistea irakurtzerakoan. Egunkariaren zuzendariak inoiz ez bezalako presioak jasan behar izan omen zituen, argitaratutakoa zuzentzeko.

Biharamunean honela zabaldu zuen egunkaria:

"Gure politikari erdiak ez daude ustelduta".

Mexikon gertatu zela esan dut, ezta?

GAIXOEN OLIADURA
Tiburtzia azkenetan dago.

Hiltzear dauden gaixo guztiekin egin ohi duen legez, On Kanuto etxera etorri zaio. Kontsolamenduzko hitz batzuk esan eta gero, honako hau gaineratu dio:

– Tiburtzia, nik uste dut on egingo dizula eta... nahi baldin baduzu gaixoen oliadura emango dizut.

Eta Tiburtziak:

– Ez dut uste merezi duenik... Hemendik ordu erdira edo, zuzenean hitz egin ahal izango baitut nagusiarekin.

NAUFRAGO SOLIDARIOA
Itsasontzia hondoratu eta itsas erdian galduta daude bi lagun hauek, almadia moduko egur gaizki josi batzuen gainean. Hilabetea daramate itsasoan noraezean, eta, ur kupela erdi beterik baldin badute ere, bada astebete ezer jatekorik gabe geratu direla.

Bietako bat lotan dagoela aprobetxatuz, besteak sakelatik labana atera eta hanka ebakitzen hasi zaio. Lotan zegoena orro batean esnatu da:

– Isil hadi! Hiri ere emango diat puska bat eta!

SOLUZIOAK



ASTELEHENEKO GOIENKARIA
Harpidedunen
txokoa

ASPEren ESKAINTZA BEREZIA

'Asteleheneko Goienkaria'-ko irakurleendako

Hurrengo Asteleheneko Goienkaria-n, **bete kupoia** eta eskaria zeure etxean jasoko duzu, abantailekin:
%30eko beherapena eta oparia pertsonalizatzeko aukera!

PILOTA
- Aspeko pilotari batek sinatua.
- Narruzkoa.

30€* pilota bat

KAMISETA
- Zure izenarekin edo ASPEko pilotari batenarekin.

40 €*

PRAKAK

35 €*

* Produktuen prezioetan deskontua aplikatuta dago.

aspepelota.com

ASPEko pilotariak:
Apeztegia, Arizmendi, Arroyoll, Auxkin, Baleztena, Barriola, Berna, Berraondo, Capellan, Chafee, Del Rey, Elkoro, Etxaniz, Eugi, Eulate, Galarza VI, Galarza V, Gonzalez, Goñi III, Lasa III, Laskurain, Mtnez. de Irujo, Nalda III, Pascual, Titin III, Urberuaga, Xala, Zubieta.

Harpidetu zaitez edo erosi Asteleheneko Goienkaria kioskoan eta...

ASPEko produktuak
%30eko deskontuarekin eta pertsonalizatuta
lortu ahal izango dituzu.

ZOZKETAK

Zozketan parte hartzeko baldintzak:
- *Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:
902 36 38 51
Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 21:00etara.

Kuota:
Harpidetza kuota, 35 euro
2005 osoko harpidetza kuota.

ASTELEHENEKO Goienkaria
astelehenean, **aste bukaera osoa**

043 zozketa: maiatzaren 16a

ZORIONAK IRABAZLEEI!
Hauek izan dira aurreko zozketako irabazleak.
Zure izena zerrendan badago, zorionak!



Josu Balantzategi
Arrasate
SARIA:
WERLISA argazki kamera digitala

EIBAR - SPORTING futbol partidurako sei sarrera (saridun bakoitzarendako bi).
- Pedro Errasti (Arrasate)
- Nerea Cuesta (Bergara)
- Julian Oianguren (Eskoriatza)
- Arantzazu Izarzelaia (Arrasate)
- Santi Berezibar (Arrasate)
- Juan M. Alberdi (Bergara)

Maiatzak 22an, Elgetako Espaloia Kafe antzokian izango den ROGELIO BOTANZ eta ALFONSO SASTREREN ikuskizunerako bi sarrera (saridun bakoitzarendako bi).
- Agurne Unamuno (Bergara)
- Iñaki Altube (Oñati)

044 zozketarako sariak

- **EIBAR-MURCIA** futbol partidurako sei sarrera (saridun bakoitzarendako bi).
- **ISTILU** etxeko kamiseta bat.
- **'NAEROBITARRA'** mundua ezagutzeko jolasa.



‘Ilunpean’

EGUBAKOITZA, 20 / **21:00 eta 22:30**

Antton Karrera ezagutzeko aukera ‘Ilunpean’ saioan

Gaur egun Ezker Batua - Berdeak alderdiko aurpegi ezagunenetakoa dugu Karrera. Baina askok ez duzue jakingo, Carlos Garaikoetxea edo Kike Amonarrizen euskara irakaslea izan zela. Hau eta sekretu gehiago, *Ilunpean* saioan.



‘Iratxo Magikoa’

MARTITZENA, 24 / **13:50 eta 20:30**

Marrazki bizidun berriak estreinatuko ditugu

Iratxo bat izango da protagonista martitzen eta eguenetan. *Samed* izeneko iratxo magikoak jendearen desioak errealitate bihurtu beharko ditu. Edonola ere, azkar ibili beharko du. Bere magiak eguzkia sartu arte irauten baitu bakarrik.

‘Debarri’

MARTITZENA, 24/ **21:00 eta 22:30**

Bigarren aldiz, Arrasate protagonista

Inazio Lakuntza Arrasateko alkatearen txanda izango da martitzeneko *Debarri* saioan. Alberto Gorritibereak Arrasaten azken aldian martxan dauden proiektuen gainean galdetuko dio. Ikusleek aukera izango duzue saioan parte hartzeko.

‘Chiloé’

EGUAZTENA, 25 / **21:00 eta 22:30**

Jordania gertutik ezagutu nahi al duzu gurekin?

Maider Egues kazetariaren eskutik, beste herrialde batzuk ezagutzeko aukera izango dugu eguaztenetan, *Chiloé* saioan. Estreinaldian, Maiderrek Jordaniara eramango gaitu. Hango parajerik politenak ekarriko dizkigu GOITBra.

TELEBERRIAK

‘Vaya Semanita’ saioaren bertsioa Tele5n, ‘CQC’-ren ordez

Vaya Semanita saioaren arrakasta eta oihartzuna ETBren eremutik haratago iritsi dira. Izan ere, Espainiako ia telebista kate guztiek eskaintzen diote tarteren bat zapping erako saioetan. Hori gutxi balitz, orain, Tele5ek ETBko *Vaya Semanita*-ren bertsioa izango dena estreinatuko du datorren egubakoitzean, gaur zortzi, *CQC*-ren ordez. *Los Santxez* familiak ere izango du bere parekoa saio berrian, *Los Perez*-ekin. *Vaya Semanita* ekoizten duen etxe bera, Pausoka, arduratuko da Tele5ko saio berriaz ere. Saioaren izena izango da *Agitación + Iva.*

‘Beste gu’ saioaren emaitzekin gustura daude ETBn

Ezohikoa izan arren eta ikus-entzule zabalarengana heltzeko saio zail samarra izan arren, Dani Arizalaren *Beste gu* saioarekin gustura daude ETBn eta seguru asko datorren ikasturtean ere segituko du. 13 saio grabatu zituzten hasieran eta beste lau grabatzeko eskaria egin zion ETBk Baleuko-ri, saioa ekoizten duen etxeari. Lau saio horietako batean Alberto Iñurrategiri egingo dio elkarrizketa Arizalak eta ekainaren 9an eskainiko dute. ETBko saio arrakastatsuenaren, *Vaya semanita*-ren egun berean ematen dute *Beste gu*, baina hala ere, emaitza nahiko onak izaten ari da azken asteotan.

ASTEKOPROGRAMAZIOA/ Maiatzaren 20tik 26ra

Goitb Goiena Telebista

EGUBAKOITZA 20	ZAPATUA 21	DOMEKA 22	ASTELEHENA 23	MARTITZENA 24	EGUAZTENA 25	EGUENA 26
13:20 **Baneki** 13:50 **Marrazki bizidunak:** Sherezade eta Lazkao Txiki 14:15 **Berriak Aurrerapena** 14:30 **Behazulo** 15:00 **Auñamendietan** 15:30 **Berriak Aurrerapena** 15:45 **Klip@** 19:35 **Gaurkoak** 19:45 **Klip@** 20:00 **Berriak** 20:30 **Marrazki bizidunak:** Sherezade eta Lazkao Txiki 21:00 **Ilunpean:** Antton Karrera 21:30 **Eguzki lore** 22:00 **Berriak** 22:30 **Ilunpean** 23:00 **Eguzki lore** 23:30 **Gaurkoak** 23:45 **Emisio amaiera**	11:05 **Behazulo** 11:35 **Baneki** 12:00 **Marrazki bizidunak:** Sherezade 13:10 **Baneki** 13:40 **Marrazki bizidunak:** Lazkao Txiki 14:00 **Ilunpean** 14:30 **Auñamendietan** 15:00 **Filma:** Betizu izar artean 16:00 **Eguzki Lore** 16:30 **Jaun ta jabe** 17:00 **Klip@** 17:15 **Behazulo** 17:45 **Jaiak 2005:** Bergara 18:15 **Dantza suelto txapelketa** 19:15 **Marrazki bizidunak:** 03 Patrulla 20:00 **Marrazki bizidunak:** Lazkao Txiki 20:30 **Emisio amaiera**	11:05 **Filma:** Betizu izar artean 12:00 **Marrazki bizidunak:** 03 Patrulla 12:55 **Marrazki bizidunak:** Lazkao Txiki 13:10 **Jaiak 2005** 13:40 **Dantza suelto txapelketa** 14:40 **Eguzki lore** 15:10 **Filma** 16:00 **Auñamendietan** 16:30 **Marrazki bizidunak:** Sherezade 17:45 **Klip@** 18:00 **Baneki** 18:30 **Jaun ta jabe** 19:00 **Ilunpean** 19:30 **Marrazki bizidunak:** 20:15 **Baneki** 20:45 **Jaiak 2005** 21:15 **Dantza suelto txapelketa** 21:45 **Emisio amaiera**	13:50 **Marrazki bizidunak:** Sherezade eta Lazkao Txiki 14:15 **Berriak Aurrerapena** 14:30 **Ilunpean** 15:00 **Eguzki lore** 15:30 **Berriak Aurrerapena** 15:45 **Klip@** 19:30 **Emisio hasiera** 19:35 **Gaurkoak** 19:45 **Klip@** 20:00 **Berriak** 20:30 **Marrazki bizidunak:** Sherezade eta Lazkao Txiki 21:00 **Baneki** 21:30 **Harmailatik** 22:00 **Berriak** 22:30 **Auñamendietan** 23:00 **Harmailatik** 23:30 **Gaurkoak** 23:45 **Emisio amaiera**	13:20 **Baneki** 13:50 **Marrazki bizidunak:** Iratxo Magikoa 14:15 **Berriak Aurrerapena** 14:30 **Harmailatik** 15:00 **Auñamendietan:** Tuc de la Salana 15:30 **Berriak Aurrerapena** 15:45 **Klip@** 19:30 **Emisio hasiera** 19:35 **Gaurkoak** 19:45 **Klip@** 20:00 **Berriak** 20:30 **Marrazki bizidunak** Iratxo Magikoa 21:00 **Debarri:** Arrasate 22:00 **Berriak** 22:30 **Debarri:** Arrasate 23:30 **Gaurkoak** 23:45 **Emisio amaiera**	13:50 **Marrazki bizidunak:** Sherezade eta Lazkao Txiki 14:15 **Berriak Aurrerapena** 14:30 **Debarri:** Arrasate 15:30 **Berriak Aurrerapena** 15:45 **Klip@** 19:30 **Emisio hasiera** 19:35 **Gaurkoak** 19:45 **Klip@** 20:00 **Berriak** 20:30 **Marrazki bizidunak:** Sherezade eta Lazkao Txiki 21:00 **Chiloé** Jordania 21:30 **Jaun ta jabe** 22:00 **Berriak** 22:30 **Chiloé** 23:00 **Jaun ta jabe** 23:30 **Gaurkoak** 23:45 **Emisio amaiera**	13:50 **Marrazki bizidunak:** Iratxo Magikoa 14:15 **Berriak Aurrerapena** 14:30 **Chiloé** 15:00 **Jaun ta jabe** Barrabas 15:30 **Berriak Aurrerapena** 15:45 **Klip@** 19:30 **Emisio hasiera** 19:35 **Gaurkoak** 19:45 **Klip@** 20:00 **Berriak** 20:30 **Marrazki bizidunak:** Iratxo Magikoa 21:00 **Baneki** 21:30 **Behazulo** 22:00 **Berriak** 22:30 **Chiloé** 23:00 **Behazulo** 23:30 **Gaurkoak** 23:45 **Emisio amaiera**
13:20 **Baneki**	15:05 **Filma**	20:45 **Debarri**	21:30 **Harmailatik**	13:50 **Iratxo Magikoa**	21:00 **Chiloé**	21:30 **Behazulo**

GOIENA TELEBISTA / Posta elektronikoa: **goitb@goiena.com** • Telefonoa: **943 71 23 95**

KAMERAAURREAN

“Juanitok lan handia egin zuen Arrasaten musikaren alde. Horregatik uste dut, ondo merezitako omenaldia izango dela maiatzaren 28an eta 29an egingo dioguna”.

Dabid Artzamendi / Juanito Arzamendiren anaia
‘Berriak’ (2005/05/17)

“Enpresen artean kalitate sare bat eraikitzen ari gara. Hala, enpresa bakoitzak egiten duen lana eta jasotzen duen jakintza onuragarria izango da beste guztiendako”.

Xabier Alkorta / Euskaliteko lehendakaria
‘Berriak’ (2005/05/18)

TELEBEGI/ Eneko Azkarate

Ospakizunen arriskuak

Futbolariek prentsaren aurrean egiten dituzten agerraldiak oso aspergarriak izaten dira, salbuespenak salbuespen: “Futbolean ez dago etsai errazik”, “Gogor jardun beharko dugu arerioa menderatzeko”… Baina, betikotik aldentzen direnean, ospakizunetan murgiltzen direnean, eta xanpainaren txinparten laguntzaz eta zaleen oihuengatik euforiko jartzen direnean, edozer gerta daiteke…, barregarri eta lotsagarri geratzeraino. Horixe gertatu zitzaion domeka gauean Eto’o kamerundarrari, Camp Noun, liga irabazi osteko ospakizunetan, madrildarrei irainka hasi zitzaienean: “Madrid cabrón, saluda al campeón”. Eta horixe bera gertatu zitzaion 1997-98 denboraldian Julen Guerrerori, Athletic-ek ligan bigarren postua lortu eta Europako Txapeldunen Ligarako sailkatu zenean, Bilboko udaletxeko balkoitik oihuka hasi zenean: “Uranga cabrón, Etxebe es un leon”. Bien orroak entzun zituzten milaka lagunek telebistatik…, eta biek eskatu behar izan zuten barkamena, damututa, biharamunean, egunerokora itzuli zirenean.

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Administrazio eta Finantzak (EGUNEZ eta GAUEZ)
- Nazioarteko Merkataritza
- Gorputz eta Kirol-ekintzen Sustatzea

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Administrazio Kudeaketa
- Merkataritza

EIBAR

Otaola Hiribidea, 29 - 20600 EIBAR
Tel. 943 20 84 44 /
Faxa. 943 20 31 96
E-maila. uni@iesunibhi.com
www.iesunibhi.com

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Telekomunikabide eta Informatika-Sistemak
- Informatika Aplikazioen Garapena
- Informatika sistemen administrazioa

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Informatika Sistemen Ustiapena

ERMUA

Ongarai Auzoa - 48260 ERMUA
Tel. 943 17 62 57
Faxa. 943 17 64 50
E-maila. uni@iesunibhi.com
www.iesunibhi.com



Aurrematrikula: ekainaren 1etik 8ra

LOIOLA KLINIKA

BEGIETAKO KLINIKA

Begietako mikrokirurgia:
Kataratak: Miopia / Hipermetropia.
Bitreo-erretinako gaixotasuna: Erretina-askatzea / Laser tratamendua. Termoterapia / Makulako gaixotasunak / Erretinopatia diabetiko konplikatua

Manuel Salaberria *Mediku oftalmologoa*

AZPEITIA / KLINIKA: Loiola auzoa 25 C. T: 943 15 17 52. F: 943 15 18 91
DONOSTIA / KONTSULTA: Zubieta 11-1. T: 943 44 46 79

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

Argitaratzailea: Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 Arrasate
Egoitza nagusia: **BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta-e: *goienkaria@goiena.com*
Ordezkaritzak: **Arrasate** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta-e: *arrasatepress@goiena.com*
Aretxabaleta 20550 Durana 11 • 151 posta-kutxa • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta-e: *aretxagazeta@goiena.com*
Publizitatea: **Arrasate** 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93 • Posta-e: *publi@goiena.com*
Lege Gordailua: NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 18.935 ale • **Difusioa:** 17.680 ale.
HARPIDETZA: **943 79 21 00** • Posta-e: *harpidetza@goiena.com*
Goiena Komunikazio Zerbitzuak
OJD erakundeak ikuskatutako astekaria
EGUBAKOITZA, 2005eko maiatzaren 20a

Atzeskua

OIHANA ELORTZA

Inma Delgado/ Bitxigilea

Modan jarri da bitxiak norberak egitea edo nire inpresioa da?

Modan dago, bai. Materiala saltzen duten denda gehiago daude orain lehen baino. Donostian, adibidez, hiru denda berri zabaldu dituzte.

Zuk non erosten dituzu lehengaiak?

Donostian, betiko dendan, gainera. Orain herriko mertzerietan ere hasi dira saltzen, baina asko egin behar badituzu merkeagoa da denda espezializatu batean erostea.

Ze material erabiltzen duzu, zehazki?

Koloretako harriak plastikozkoak edo beirazkoak dira asko. Kateak eta belarrietarako kakoak, berriz, bisuteria dira gehienak, nahiz eta zilarrezkoak ere egiten ditudan.

Bisuteriari alergia diogunok, orduan, aukera gutxiago dugu?

Ez, ez. Gainera, aleazioak dira eta pare batek alergia egin arren beste batek ez dizu egingo, agian. Askotan aldatzeko bitxiak dira.

Non saltzen dituzu egindako bitxiak?

Lagunartean, eskolan, lantokian eta baita azoketan ere. Arrasateko Santamas eguneko azokara joan nintzen lehenengo aldiz eta asko gustatu zitzaidan. Gehiagotan ere joan izan naiz harrezkero.

Asteburu honetarako antolatu dute Erdi Aroko bigarren azoka Arrasaten. Joango zara?

Bai. Iaz ere joan nintzen eta asko gustatu zitzaidan. Orain arte Arrasaten egin dituzten azoketara joan naiz bakarrik.

Noiztik egiten dituzu bitxi hauek?

Beti saiatzen nintzen apurtutako lepoko zaharrak konpontzen. Gero, niretako egiten nituen bakarrik, baita oparitarako ere, eta ondoren jendearen enkarguak egiten hasi nintzen.

Eta noiz hasi zinen prezioa jarri eta saltzen?

ETEOko kultura-taldeko kidea naiz eta ikastetxeko eguna antolatu genuenean, lagunek postua jarri eta bitxiak saltzeko esan zidaten. Kosta zitzaidan animatzea, baina azkenean egin nuen. Eramandako denak saldu nituen eta han irabazitako diruarekin Bruce Springsteenen kontzertura joan nintzen, pentsa, Bartzelonara.

Era guztietako bitxiak egiten dituzu?

Belarritakoak egiten ditut gehien, baina baita lepokoak, eraztunak edo paparreko orratzak ere.

Udaberrian eta udan gehiago salduko dituzu neguan baino, ezta?

Ez pentsa. Neguan ere askotan aldatzen ditu jendeak belarritakoak, luzeak zein motzak. Bost eta hamar euro artean balio dute, merkeak dira.

Enkarguak izaten dituzu?

Lagunek, adibidez, niki gorria erosi dutela eta belarritako gorriak egiteko esaten didate, neuk pentsatzeko gero modeloa. Ezkontza sasoian erotu egiten naute.

“Bost eta 10 euro artean balio dute eta jendeak asko aldatzen du belarritakoz”

“ETEOko jai batean eramandako bitxi guztiak saldu nituen eta diruarekin Bruce Springsteenen kontzertura joan nintzen”

“Lagunek eskari zuzenak egiten dizkidate eta ezkontza sasoian erotu egiten naute”

► *Arrasate/ 25 urte / Erdi Aroko azokan egongo da*

PIPERRAUTSA

Atutxa

Txarto hasi dira gauzak hauteskunde ondoren, “berria” izan behar zuen aroan. Legebiltzarreko burua aukeratzerakoan, hirugarrenez errepikatu da berdinketa, eta berretsi ataskoa.

Uste dut arazoaren kulpante nagusia EAJ dela. Alderdi bozkatuena da, eta berari dagokio Legebiltzarreko burua, hori guztiek aitortzen diote. Baina lehen baino ahulago dago, eta ezin du onarrarazi besteek nahi ez dutena, adostu beharrean dago. Eta Atutxa ez da izen aproposa adostasuna lortzeko. Sailburu garaian batzuekin, eta Legebiltzarreko buru garaian besteekin, iskanbilak izan ditu arerio politikoekin, eta hauek ez daude amore emateko.

Atutxak lehia utziko ote duen ere zabaldu da egunotan. Keinu ona litzateke, eta Buenek batera uzteak lagundu egingo luke tragoa leuntzen. Hortik aurrera, has daitezke mahai osoa adosten. Ze arazoa ez da bakarrik nor izango den burua, mahaiak bost aulki ditu eta zazpi ipurdi daude eseri zain. Nola jokatu: EA sartu eta EB kanpoan utzi? EA eta EB sartu eta EHAK kanporatu?

Ona litzateke alderdiek kurioso samar gainditzea lehen zailtasun hau. Animatu egingo lituzke erronka zailagotarako. Eta gizartean itxaropena piztuko luke alderdien jarrera arduratsu eta efikazak. Merezi dugu horrenbeste.

MIKEL IRIZAR
www.goiena.net/blogak/piperrautsa